

See discussions, stats, and author profiles for this publication at: <https://www.researchgate.net/publication/324978906>

PLAN DE TURISMO ZUMAIA 2018–2021: Garantizando El Bienestar de los/las Locales y la Convivencia con los/las Visitantes

Technical Report · March 2018

DOI: 10.13140/RG.2.2.12686.46409/1

CITATIONS

0

READS

103

2 authors:



Igor Calzada
Cardiff University

128 PUBLICATIONS 527 CITATIONS

[SEE PROFILE](#)



Ana Arranz
Translokal Academic Entrepreneurship, Basque Country

4 PUBLICATIONS 9 CITATIONS

[SEE PROFILE](#)

Some of the authors of this publication are also working on these related projects:



NEIGHBOURHOODLABS: Neighbourhood Laboratories for the Urban Integral Regeneration through Strategic Recommendations from the Social Innovation [View project](#)



Beyond Smart & Data-Driven City-Regions? Rethinking Stakeholder-Helices Strategies (in collaboration with the RSA Smart City-Regional Governance for Sustainability Research Network) [View project](#)

BERTAKOEN
ONGIZATEA
ETA
TURISTEKIKO
ELKARBIZITZA
BERMATZEA:

ZUMAIAKO TURISMO PLANA

2018-2021



ZUMAIAKO UDALA

Zumaiako Udala

Oier Korta. Alkatea

Zumaiako Kultura, Turismo eta Merkataritzako Informazio Batzordea.

Jon Iraola. Batzordeburua.

Ane Arregi, Ione Muguerza, Joseba Azpiazu eta Arritxu Marañon. Batzordekideak.

Zumaiako Turismo Saila

Estibalitz Iureta. Arduraduna.

Ikerketa ekintzan / Translokal Aholkularitza taldean

Igor Calzada doktorea (MBA). Zuzendari zientifikoa

Ana Arranz. Koordinazioa eta laguntza teknikoa



'Bertakoen Ongizatea eta Turistekiko Elkarbizitza Bermatzea: Zumaiako Turismo Plana 2018-2021'. – (2018) Zumaia: Translokal Academic Entrepreneurship for Policy-Making

Calzada, I. & Arranz, A. (2017), Zumaia Tourism Plan: ZumaiaLab Tourism LivingLab, Zumaia: Translokal – Academic Entrepreneurship for Policy Making y University of Oxford. ISBN: 978-84-946385-3-4
DOI:10.13140/RG.2.2.12686.46409

AURKIBIDEA

Eskerrak.....	4
Hitzaurrea: Udalaren agurra.....	5
Laburpen exekutiboa	6
1. PLANAREN AURKEZPENA	9
a. Gida-orria.....	10
b. Planaren egitura	11
2. METODOLOGIA	13
3. I. FASEA. HASIERAKO DIAGNOSIA:	16
a. Abiapuntuko hipotesia	16
b. Turismoaren joera globalak, eskualdekoak eta tokikoak.....	17
c. Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea	28
d. Zumaia	32
i. Zumaiaiko turismo saila.....	32
ii. Herriaren profila: Zumaia	37
iii. Bertako klima eta mareak.....	38
iv. Gune metropolitanoa/hiri-eskualdea	39
<input type="checkbox"/> Kokapena eta mugikortasuna	39
<input type="checkbox"/> Ingurune naturala, itsaslabbarrak eta hondartzak	40
v. Jasangarritasuna	42
<input type="checkbox"/> Agenda 21	42
<input type="checkbox"/> URKOME	42
<input type="checkbox"/> Ziurtagiriak.....	43
vi. Diagnosi sozioekonomikoa:	44
<input type="checkbox"/> Bisitarien eboluzioa	44
<input type="checkbox"/> Etxebizitza eta ostatua.....	45
<input type="checkbox"/> Ostalaritza	47
<input type="checkbox"/> Beste zerbitzu turistiko batzuk.....	47
<input type="checkbox"/> Elkarbizitza. Kohesio soziala/bizi kalitatea.....	47
<input type="checkbox"/> Garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna	48
<input type="checkbox"/> Generoa.....	49
<input type="checkbox"/> Kultura, Euskara eta nortasuna.....	49
<input type="checkbox"/> Ingurumena eta klima aldaketa	50
<input type="checkbox"/> Mugari zinematografikoak eta horien ondorioak	51
<input type="checkbox"/> Markak.....	52
	> 2

vii.	Turismo segmentuak	53
viii.	Gizarte zibileko mugimenduak turismoaren aurrean	54
e.	AMIA (DAFO). Ondorioak.....	55
4. II. FASEA. INTERBENTZIOA: ZumaiLab, herria plataforma parte-hartzaile gisa		61
a.	Herritarren pertzepzioak eta iritzia:	62
i.	Galdetegia: datu kuantitatiboak	62
ii.	Elkarrizketa sakonak: datu kualitatiboak	64
b.	ZumaiLab 1. LABORATEGIA: Ardatz estrategikoak/bektoreak eta erronkak	71
c.	ZumaiLab 2. LABORATEGIA: Proiektu operatiboak/lan eremuak	75
5. III. FASEA. Adierazpen estrategikoa		81
a.	Zumaiako turismoaren ikuspegi orokorra	82
b.	Helburu orokorra	82
c.	Helburu operatiboak	83
d.	Erronkak eta lan-eremuak.....	85
e.	DEKALOGOA. Bektoreak edo ardatz estrategikoak	86
i.	1. Bektore/ardatz estrategikoa: ELKARBIZITZA	90
ii.	2. Bektore / ardatz estrategikoa: TOKIKO TURISMO EKINTZAILETASUNA	96
iii.	3. Bektore/ardatz estrategikoa: TOKIKO SENTIMENDUA	103
iv.	4. Bektore/ardatz estrategikoa: KULTURA EKOSISTEMA.....	107
v.	5. Bektorea / ardatz estrategikoa: TOKIKO EKONOMIA	110
vi.	6. Bektorea / ardatz estrategikoa: EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA..	113
vii.	7. Bektorea / ardatz estrategikoa: GOBERNANTZA TURISTIKOA	116
viii.	8. Bektorea / ardatz estrategikoa: HELMUGA TURISTIKO ADIMENTSUA	120
ix.	9. Bektorea / ardatz estrategikoa: POSIZIONAMENDU GEOGRAFIKOA.....	123
x.	10. Bektorea / ardatz estrategikoa: TEKNOLOGIA BERRIAK	126
f.	Adierazpen estrategikoaren laburpen taula	129
g.	Ekintzen lehentasuna (urteko faseak)	131
6. AZKEN ONDORIOAK		136
	Irudiak eta taulak.....	140
	Erreferentziak	142
	Eranskina 1. ZUMAIKO TURISMOAREN GASTU ARRUNTA	151
	Eranskina 2. GALDETEGIA	153

Eskerrak

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiogu, bereziki, Zumaiaiko turismo teknikari eta arduradun Esti Iruretari, laguntza aparta eman digulako; turismo bulegoko lankideei; Zumaiaiko Turismo Batzordeko buru Jon Iraolari eta batzordeko kideei; Zumaiaiko alkate Oier Kortari; Zumaiaiko Udaleko zinegotzi Alex Olideni; eta Udalari, oro har, lan hau egiteko aukera eta baliabideak eman dizkigulako; komunikazio arduradunari; euskara zerbitzuko teknikariei; Alondegiko arduradunei, logistika-lanetan lagundu digutelako; Baleike elkarteari, eta Bakun enpresari.

Hurrengo orrietan jasotako lana urte osoko prozesuaren ondorio da. Eskerrak eman nahi dizkizuegu lan honetan parte hartu duzuen eragile publiko eta pribatu guztiei, gizarte-elkarteei, akademikoei, ekintzaileei eta honen berri eman duzuen guztiei. Zuen laguntzarik eta parte-hartzerik gabe, ezinezkoa izango zen Zumaiaiko turismo plana egitea.

Eskerrak ematen dizkiegu, azkenik, zumaiarrei eta bisitariei.

Hitzaurrea: Udalaren agurra

Munduko txoko eta bazter desberdinak ezagutzeko grina aspalditik datorren kontua da. Gizakiok betidanik izan dugu geure mugetatik kanpo dauden lurraldeak, paisai edota kulturak ezagutzeko jakin-mina, eta desio hori betetzeko egindako bidaiak ezagutu ditugu beti, turismo gisa.

Zer da, bestela, turismoa? Turismoa da jendeak euren bizilekutik kanpo dauden herri zein hiriak ezagutzeko egin ohi dituen joan etorriak. Eta ildo horretan, datuek ez gaituzte engainatzen. Azken urteotan toki berriak ezagutzeko jakin-mina nabarmen hazi da. Horrek noski, turismoaren definizioa birplanteatzera eraman gaitu, turismoa bera, herriarentzat aukera eta baliabide gisa planteatzera, alegia.

Eta Zumaia ez da atzean geratu turismoaren birplanteaketa horretan. Kostako herri gisa, asko eta anitzak dira gure herria turistentzat erakargarria egiten duten arrazoiak: Flyscha, noski, itsaso eta hondartza bera, hizkuntza, gastronomia, ondarea...

Zumaiarrok ezagutzen ditugun erakargarritasun horiek guztiak nabarmenak dira bisitariarentzat ere eta herrian turismoa betidanik ezagutu dugun arren, azkenaldian nabarmen igo da jaso ditugun turisten kopurua.

Igoera horrek, ordea, sentimendu kontraerriak piztu ditu herrian: poza, harrotasuna, beldurra, kezka.... Edonola ere, Zumaia turistentzat herri erakargarria izatea, orokorrean gauza ona den arren, goranzko joera hori arretaz tratatzeko gaia da.

Eta arreta eta herria zein herritarrekiko ardua puntu horretatik abiatuta heldu genion, hain zuzen, Zumaiaiko Turismo Plana garatzeari. Urtebeteko bidaia izan da hau, luze bezain aldapatsua, baina guztiz aberasgarria.

Lan horri esker, Turismo Planak nondik gatozen eta etorkizunera begira nora iritsi nahi dugun zehazteko balio digu. Horretarako lan ildo eta ardatzak definitu ditugu, gure helmugarako bidean hartu beharreko neurriak zehaztuz.

Dena den, bidaiako gauzarik azpimarragarriena eta hoberena dudarik gabe, Plana osatzeko izandako elkarlana eta adostasuna dira. Parte hartzea galanta izan da eta alor ezberdinetatik eratorritako jendea biltzea lortu dugu, ikuspuntu eta ikuspegi desberdinekoak guztiak. Iritzi eta ekarpen asko eta askotarikoak jaso ditugu bidean, guztiak interesgarri zein mesedegarriak.

Eta hain zuzen aniztasun hori bilakatu da Planaren giltzarria. Herri guztietan bezala, Zumaian ere badirelako turismoarekiko ikuspuntu eta iritzi desberdinak eta guztiak direlako ongietorri bezain baliagarriak.

Bihotzez eskerrik beroenak Turismo Plana garatzea posible egin duzuen guztioi. Izan dadila hau gure etorkizunerantz elkarrekin egiten dugun bidaiaren lehen urratsa.

Zumaiaiko Udala

Laburpen exekutiboa

Herrigintzatik eratorritako gizarte jarduera eta aktibitate ekonomikoa den neurrian, turismogintzak ezinbestean eragiten du herrian, eta arazo bihur daiteke, baldin eta ez baldin bada ahalegin zuzen edo zeharkakorik egiten herritarren pertzepzioa ezagutzeko, iritzia trukatzeko edota gida-orri estrategikoarekin nora goazen eta zer nahi dugun zehazteko.

Zumaiako Udal osoak, turismoak ingurugiroan, herritarrengan eta, oro har, haien ongizatean eragiten ari zela ohartu ondoren, prozesu estrategiko eta parte-hartzaile bat abian jartzea erabaki zuen 2017an. Prozesu horretan, estrategia eta parte-hartzea (deliberazioa eta gobernantza) uztartu nahi izan ditu. Hartara, aholkularitza estrategiko hau ikerketa-ekintza moduan diseinatu eta gauzatu da hasieratik, plana hezurmamitzeko. Prozesu sakon eta bizi honetan, bide bat zedarritu da, Zumaiarekin eta, zehazki, bere turismoarekin lotura zuzena duten eragile askorekin. Bidea, bestalde, ez da lineala izan. Hemen modu zehatz eta egituratuan aurkezten den arren, estrategia eta parte-hartzea uztartu ondoren sortu da '*Bertakoen Ongizatea eta Turistekiko Elkarbizitza Bermatzea: Zumaiako Turismo Plana 2018-2021*'.

Planaren laburpen hau egin dugu:

1. Turismogintza ez dago krisian, baina ganorazko eredu berriak behar ditugu gizartean eta herrietan, azkenaldian zabaldu diren kezkei, mehatxuei eta erronkei erantzun egokia emateko. Eredu horietan oinarrituta, arauak eman daitezke alor publikoan, eta gizarte zibilak, elkarteek, enpresek eta erakunde akademikoek jarduera ekintzaileak abia ditzakete 2018-2021 epean.
2. Plan honek 10 bektore estrategiko finkatu ditu, eta metodologia parte-hartzailea erabilita, gizabanakoen eta erakundeen ordezkarien iritzi, pertzepzio eta proposamenekin hezurdura estrategiko hau eraiki da; eta adierazpen estrategikoa eta operatiboa proposatu da, dokumentu bizia eta erabilgarria egiteko. Jarraipenak emango dio erabilgarritasuna: 10 ardatz estrategiko, 39 ekinbide, 15 erronka, 5 lan-eremu, eta 142 ekintza hedatu dira, orokorretik zehatzera eginik ibilbide estrategiko eta operatiboa.
3. Zumaiako Turismo Planaren helburu orokorra hasieratik izan da dokumentu honen erreferentzia (82. orria):
'Herritarren parte-hartzearekin garatutako diagnosiarekin, hurrengo 4 urteetan garatu beharreko turismo politiketako gida-orria aurkezten da:
 - (i) *turismoaren alorrean, eztabaida irekitzea eta plazaratzea;*
 - (ii) *eta turismoaren arloan lidergo kolektibo herritarra indartzea, haren kudeaketan eragiteko.*
 - (iii) *Aldebakarreko erabakietatik aldentzea eta herritarrek ahalduntzea, gune eta tresna parte-hartzaileak sortuz.*

4. Testuinguru orokorrean, turismoarekin gertatu dena ez da gure herriarengan sortzen den efektua soilik; testuinguru global eta lokalaren arteko kontraesanaren zelaian jokatzeko ari da partida, eta horrek, badiu gure herrigintzan barru-barruraino eragiten duten zenbait gako eta albo ondorio, sarritan onuragarriak izan ez direnak. Plan honen helburua, beraz, olatu handi honen aurrean kontzientzia piztea eta, aldi berean, elkarrekin erantzun erresiliente bat ematen saiatzea da.
5. Zumaian zehazki, hasiera batean plan honetan identifikatutako arazoetako batzuk ziren, besteak beste, ingurugiroaren hondatzea, bisitarien etorrera masiboari aurrerik ez hartu izana, zerbitzuak hobetzeko premia, koordinazio instituzionalaren gabeziak, eta turismoak lehen sektorean izan dezakeen eragina. Planaren lanketa aurreratu ahala, zehaztasunera jo dugu, balioa eman diogu adimen kolektiboari, eta arazoak zehatz identifikatu ondoren, irtenbideak bilatu dira.
6. Lanketa honetan zehar gai asko aztertu dira, hala nola ekintzaitasuna, garapen ekonomikoa, normalizazio politikoa, turismogintzaren gizarteratzea eta konektibitate digitala. Zeharkako posiziotik erdigunera egin dute gai horietako batzuek.
7. Zumaiaiko Udalak, iragan urtetik aurrera, bideratzaile rola hartuta, gizabanako eta eragileen hitza eta erabakia plazaratzeko bideak jarri ditu, modu irekian, ahalik eta prozesu zabalena abian jarritz.
8. Hemendik aurrera, Udalaren egitekoa da dokumentu hau dinamizatzea eta eguneratzeko ardura hartzea.
9. Hala ere, turismoa fenomeno bizia izanik, ez dugu gomendatzen plana modu itxian kudeatzea. Alegia, lan hau guztia egin ondoren, turismoa ezin da erreazio moduan soilik kudeatu. Zumaia turismoaren *olatu*a herri-mailan zehatz-mehatz ezagutzeko bitartekoak jarri ditu, ekintzaren bidez. Planaren aktibatze bizia egitea gomendatzen dugu, beraz, inongo duda izpirik gabe, gauzak hasierako puntura buelta ez daitezela.
10. Azkenik, ezinbestean aurreikusi behar da datozen urteotan eragileek nola ulertuko dituzten herri-ereduak, politikagintza, datuen kudeaketa eta demokrazia lokala, eta zer estrategia proposatuko dituzten. Turismogintza lantzeko, gaur egun, ez da nahikoa geure buruari bisitariak nahi ditugun ala ez galdetzea; turismogintzak herritarren ongizatean eragiten duen heinean, bestelako analisi konplexu eta zabalagoak egin behar dira, geurea ez bezalako ikusmoldea dutenekin. Plan hau horren erakusgarri bat besterik ez da. Irizpide eta iritzi kontrajarrien aurrean (ere), herritarren ongizatea eta bisitarien elkarbizitza izatea bada helburu 'amankomuna', ezberdintasunetatik ideia eta ekintza-lerroak adostu eta landu ditzakegu elkarrekin. Ekin, beraz.



1

PLANAREN AURKEZPENA

1. PLANAREN AURKEZPENA

Turismoak Zumaian izan duen hazkundera egiaztatuta eta ekonomian eta gizartean duen eragina ikusirik, bertako egoera aztertzea eta eztabaida zabaltzea erabaki du Zumaiaiko Udalak. Horretarako, ekosistema turistikoaren eragile guztiak kontuan hartu ondoren, Turismo Plana idazteko prozesua abiarazi du, eta Zumaian eredu turistiko jasangarri bat marrazteko gida-orria zehaztu du.

Zumaiaiko 2015-2025 Plan Estrategikoan¹ ezarritako 16. Helburu estrategikoa betetzeko **(16 Kalitatezko turismo jasangarria sustatzea, herriaren nortasuna mantenduta)**, herritarrek nahi duten turismo eredu zehaztu asmo du plan honek. Turismoaren hazkundera indargune dugu, eta gure erronka bat da turismoa baliatzea jarduera ekonomikoa eta kalitatezko lanpostu berriak sortzeko. Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen proiektu estrategikoa garatzeko jarraibideak lantzen ari da Zumaiaiko Turismo Bulegoa, eta herritarren parte-hartzea lehenetsi dute dokumentu hori idazteko. Horrenbestez, eta turismo sektorea aztertu ondoren, dokumentu hau aurkeztu dugu diseinatu den prozesuaren emaitzekin. Galdera berriak ere egiten dira, erantzun berritzaileak topatzeko.

¹ Zumaiaiko Plan Estrategikoa 2015-2025: <https://zumaia.eus/eu/udala/plan-estrategikoa/dokumentazioa-1>

a. Gida-oria

#zumaialab



AURRETIKOAK >>

2002 >

ZUMAIAKO TURISMO BULEGOA

2010 >

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA
UNESCO MUNDUKO/EU SAREAN

2015 >

BIHARKO ZUMAIARAKO BOGA
2015-2025 PLAN ESTRATEGIKOA

2017 >

HELMUGA TURISTIKO ADIMENTSUEN
NAZIOARTEKO 1. KONGRESUA
"Translocal Strategies for Experimenting
with Smart Tourism Labs in Zumaia:
The case of the Basque Coast Geopark"
Artikulu akademikoa



DIAGNOSIA >>

METODOLOGIA

Action Research, Hirukidetasun teknikak
Urban Living Labs

TXOSTEN TEKNIKOAK

Nazioartean, EU, Estatua, Erkidegoa,
eskualdea (Explore San Sebastian Region,
Urola Kostaldea, Urola, Geoparkea, Zumaia)

LIRURUAK eta ARTIKULU AKADEMIKOAK

Dr Igor Calzada, (2011), "Euskal Hiriruntz?
Lurralde Benchmarking Konparatua
Gizarte Berrikuntzatik".

PRENTSA ETA SAREAK

Turismoaren gaiaren jarraipena



INTERBENTZIOA >>

2017 >

GALDETEGIA

59 galdera, 9.979 pertsonako unibertsoa

ENTREBISTAK

108 Eragile

Sektore Publikoa (30)
Sektore Pribatua (30)
Antolaturiko Gizarte Zibila (28)
Akademia (7)
Ekintzaileak/aktibistak (13)

LABORATEGIAK

Irailak 10 >

LABORATEGIA I

Erronkak eta Bektoreak (10)

helduak: 7 talde, 70 pertsona inguru

umeak:

5 haur (9-10 urte)/ 20 haur (5-6 urtekoak)

Azaroak 10 >

LABORATEGIA II

Irizpideak eta 5 proiektuak

5 talde, 50 pertona inguru



ESTRATEGIA >>

2018 >

ZUMAIAKO TURISMO PLANA

5 LAN EREMU

10 BEKTORE


15 ERRONKA

39 EKINBIDE

142 EKINTZA

Irdia 1. #zumaialab gida-oria.

b. Planaren egitura



Irudia 2. Zumaiaiko turismo planaren egitura.



2


METODOLOGIA

2. METODOLOGIA

Ikerketa-ekintza deritzon metodologia erabili da Zumaiarako turismo plana idazten hasi aurreko azterketa eta parte-hartze prozesuan. Metodoaren oinarrian lanerako eredu zehatz bat dago: ezagutza sortzen da eta aldaketak eragiten dira. Jardun hori bateragarria da bestelako proiektuekin, hala nola ekimen zehatzekin, ebaluazioekin eta ikerketekin.

Metodologia horren bereizgarri bat da haren **izaera parte-hartzailea**: eragile dira, aldi berean, aztertzaileak eta aztergaia. Badira, salbuespen gisa, aurretiaz ezarritako helburuak eta mugariak. Baina ikerketa-ekintza metodoaren ezaugarri da helmuga eta mugarien zatirik handiena prozesuaren beraren baitan sortzen dela.

Tokiko turismo ekosistema aztertzeko, pentahelix izeneko lan-eremua gai horretara egokitzen da. Pentahelix eredu egokia da prozesu berritzaileak ulertzeko, eta baliagarria da turismo berrikuntza bermatzen duen ezagutza sortzeko, sistemak, faktoreak eta adierazleak aztertzen dituen aldetik.



Irudia 3. Planaren mugariak, faseak.

Metodologia, mugari den aurrekari batetik abiatuz, hiru fase nagusitan banatzen da (diagnostika, interbentzioa eta adierazpen estrategikoa). Diagnostika fasean, turismoaren gaiari helduz, Zumaiaren egungo egoera aztertzen da eta aurretiazko kontzeptuak identifikatu ondoren, parte hartzeko prozesua diseinatzen hasten da. Galdetegiak eta sakoneko elkarrizketek zuzeneko informazioa ematen dute, Zumaiaren ekosistema turistikoa giltzari diren eragileak aukeratzeko. Interbentzio fasean, lanerako gune irekia dira laborategiak, eta eragileekin sortzen dira planaren muina: irizpideak. Azkenik, emaitzak aztertu eta hausnarketa egin ondoren, berrikuntza jarraibide jasangarriak azaltzen dira Zumaiarentzat, helmuga turistikoa dela kontuan hartuta.

○

Aurreiazko fasean, Igor Calzada doktoreak eta Ana Arranzek artikulu zientifiko bat prestatu dute: “*Translocal Strategies for Experimenting with Smart Tourism Labs in Zumaia: The case of the Basque Coast Geopark, Basque Country (Spain)*”.² Artikulu hori Murtzian aurkeztu zen, Helmuga Turistiko Adimentsuen Nazioarteko 1. Kongresuan. Kongresu hori Nazio Batuen baitako Munduko Turismo Erakundeak antolatu zuen, 2017ko otsailaren 15etik 17ra bitartean.



Irudia 4. Helmuga Turistiko Adimentsuen Nazioarteko 1. Kongresua. 2017. Murtzia.

Era berean, eragileekin laborategiak egin dira egun horietan, eta bi ekitalditan aurkeztu da Zumaiaren egoera, turismorako aztergai. Bata, Bournemouth Unibertsitateko “*Visitors economy: strategies and innovations*” Nazioarteko konferentzian, Erresuma Batuan; eta bestea, MUGAk I. Nazioarteko Arkitektura Bienalean, Donostian.

² Artikulua irakurgai dago hemen, ingelesez:

https://www.researchgate.net/publication/312190814_Translocal_Strategies_for_Experimenting_with_Smart_Tourism_Labs_in_Zumaia_The_Case_of_the_Basque_Coast_Geopark_Basque_Country_Spain

A grayscale topographic map of a rural landscape, showing contour lines, roads, and building footprints. The map is partially enclosed by a white rectangular border.

3

I. FASEA. HASIERAKO DIAGNOSIA



Irudia 5. Zumaia, Santa Klaratik.

3. I. FASEA. HASIERAKO DIAGNOSIA:

Lehen fasean, diagnosiari ekin zaio. Bertan, turismoaren inguruko azterketa bibliografikoa burutu da, Zumaia eta Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkeari buruz azkenaldian argitaratu diren artikuluz zientifikoak, erakundeen politikak, datu estatistikoak, saiakerak eta komunikabideetako aipuak bilduta. Diagnostika sakondu egiten da, gaiaren inguruko politika eta txosten berriak argitaratzen diren heinean.

Maila ezberdinetan du eragina turismoak, egungo fenomeno globaletik eguneroko bizimoduraino. Kontuan hartu beharreko estrategia eta irizpideak jasotzen dira, turismoan hartu beharreko erabakiak argitzen lagunduko baitute.

a. Abiapuntuko hipotesia

Zumaiaiko udalerraren kokapen estrategikoa eta turismoaren hazkunderako joera onuragarri izan daitezke tokiko ekonomia sustatzeko. Zumaia, gainera, kohesio sozial handia ageri du, turismoak elkarbizitzan eta naturagunean eragiten dituen inpaktu negatiboak kudeatzekoan.

Turismoaren gaian herritarren ahalduntzea eta parte-hartzea bultzatuz gero, ez da amaigabeko eztabaidarik izango erabakiak hartzeko.


Balio ekologikoa eta komunitatearen ongizatea berrezartzea ezinbestekoa izango da epe luzean helmuga turistikoa iraunkor bat garatzeko. Sektore turistikoa onurak bideratu behar dira biztanleriaren onura garbiak sortzeko eta natura zaintzeko.

Jarraian, nazioartean eta Europan aztertu diren txosten eta eskuliburuaren kontzeptu eta datu nabarmenak azalduko dira:

b. Turismoaren joera globalak, eskualdekoak eta tokikoak

1. Nazioartean eta Europan.

UNWTO Tourism Towards 2030: Actual trend and forecast 1950-2030



Irdia 6. Turismoaren eboluzioa eta aurreikuspena. 1950-2030. Nazioarteko Turismo Erakundea (UNWTO).

Turismoaren joera globalak erakusten du bisitarien kopuruak goranzko joera izan duela azken urteetan eta hazkundeak jarraipena izango duela. Nazioartean, 2030 urtera begira, 1,8 bilioi turista mugituko dela aurreikusten du UNWTO Nazioarteko Turismo Erakundeak.

- **Denontzat Turismo Irisgarria Eskuliburua** (OMT, 2014)

Irisgarritasunari buruzko ikuspegi orokorra ematen du eskuliburu honek, turismoarekin batera, nazioarteko eta zeharkako jarduera den heinean. Bost gai azpimarratzen ditu, oinarri teorikoak eta irisgarritasunaren oztopoen azalpena egitea; Denontzako Diseinuaren zehaztasunetan oinarritzea; esku-hartze arloen berrikuspena egitea; irisgarritasunaren eboluzioa jarraitzeko adierazle multzoa garatzea; eta, praktika onen aukeraketa azaltzea.

- **Gure mundua eraldatu: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda.³ 17 GIH Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak .⁴** (Nazio Batuen erakundea, 2015)

“Turismo iraunkorra sustatzeko erabakia hartu dugu” dio 33. puntuak eta 17 helburuetatik, honako hiru hauek dira turismoan ikuspuntua jartzen dituztenak:

8. Helburua. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina. (8.9.). 2030 bitartean, turismo jasangarria bultzatzeko politikak egitea eta betetzea, lanpostuak sortzeko eta bertako kultura eta produktuak sustatzeko.

12. Helburua. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua. Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak bermatzea. (12.b). Garapen iraunkorrean sortutako eraginak zainduko dituen instrumentuak garatzea eta ezartzea, turismo jasangarria bultzatzeko politikak egitea eta betetzea, lanpostuak sortzeko eta bertako kultura eta produktuak sustatzeko.

14. Helburua. Uretako bizitza. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrienean erabiltzea, horien garapen jasangarria egiteko.



Irudia 7. Garapen iraunkorrerako 17 helburuak. Nazio Batuen erakundea.

³ Agenda 2030 Garapen Iraunkorrerako:

http://unctad.org/meetings/es/SessionalDocuments/ares70d1_es.pdf

⁴ 17 Garapen iraunkorrerako helburuak: <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

- **Turismo jasangarrirako irizpide globalak helmuga turistikoentzat**⁵ (GSTC-Global Sustainable Tourism Council, 2013)

Irizpideak ematen dira iraunkortasuna (jasangarritasuna) modu fidagarrian neurtzeko eta frogatzeko, besteak beste kontsumitzaileen konfiantza sustatzeko, enpresa-oparotasuna sustatzeko, komunitatearen onurak hobetzeko eta adierazpen faltsuei aurre egiteko. Mota guztietako eskala eta helmugetan erabil daitezke, eta horien ezarpenarekin:

- Helmugaren kudeaketa jasangarria egiaztatzen dugu.
- Komunitate hartzaileentzako onura ekonomikoak maximizatzen eta eragin negatiboa minimizatzen ditugu.
- Komunitate, bisitari eta kultura onurak maximizatzen eta eragin negatiboak minimizatzen ditugu.
- Ingurumenarentzako onurak maximizatzen eta eragin negatiboak minimizatzen ditugu.

- **Europar sistema turismo adierazleentzat. ETIS tresnak helmuga jasangarriak kudeatzeko Sistema**⁶ (Europako Batzordea, 2017)

Lau kategoriatan banatua, 27 adierazle nagusi eta 40 aukerako adierazletan oinarritzen da:

- Helmugaren kudeaketa
- Eragin soziala eta kulturala
- Balio ekonomikoa
- Ingurumen-eragina

Turismo sektorearen lehiakortasuna bere jasangarritasunarekin lotuta dago, helmuga turistikoen kalitatea bere natura- eta kultura-ingurunearen menpe dago neurri handi batean, bertako komunitatearen jarrerarekin batera.

Gaur egun, onura ekonomikoak lortzeko, iraunkortasuna eta garapen jasangarria eztabaidaren parte dira, turismoak baliabide naturalak eta sozialak nola erabili behar dituen aztertzean.

Turismo jasangarrien irizpide globalak eta turismo iraunkorrerako adierazleak, nazioarteko eskalan, bi ekimen azpimarragarri dira. Biek helburu dute 2030 Agendaren helburuak betearaztea.

⁵ <https://www.gstcouncil.org/wp-content/uploads/2017/01/Spanish-GSTC-Dv1-1nov13-2.pdf>

⁶ https://www.google.es/url?sa=t&rcf=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0ahUKEwjOl4zDzd_XAhUI1hQKH_QpkCsMQFggqMAA&url=http%3A%2F%2Fec.europa.eu%2FdocsRoom%2Fdocuments%2F21749%2Fattachme%2F1%2Ftranslations%2Fes%2Frenditions%2Fpdf&usq=AOvVaw0UqsMwiArOkAQeuDQmQh8b

2. Turismoa Euskal Herrian

Turismoa gora egiten ari da Euskal Autonomia Erkidegoan. 2017. urtea amaitzeaz zela, Erkidegoa bisitatu zuen turista kopurua 3,3 milioira iritsi zen, eta bisitari horiek ia 7 milioi gau igaro zituzten. Urtaroekin lotu gabeko hazkunde batez mintza gaitzeko, uda garaian ia igoyerarik ez zuelako izan. Azaroan %10 hazi zen.

Azpirarratzekoa izan da atzerriko bisitarien igoera, multzo osoaren %43 izan baitira. Bisita kopurua 1,5 milioira iritsi da eta 1.500 milioi eurotik gorako gastua egin dute.

Euskal ekonomiaren sektore indartsuenetako bat da turismoa eta krisiari aurre hoberen egin diotenetako bat. 2016an turismoak euskal ekonomiari 4.100 milioiko ekarpena egin dio; BPG edo Barne Produktu Gordinaren %5,9 da hori. Gipuzkoak du balio altuena erkidegoan, BPGaren %7,4, Bizkaiak %5,2 du eta, atzetik, Arabak %5,1.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016(a)
Turismoko gastu guztia (mila euro)	3.197.340	3.465.925	3.572.608	3.677.990	3.540.544	3.618.945	3.706.425	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.299.288
Turismo hartzailea	1.502.183	1.624.820	1.665.785	1.645.444	1.592.739	1.712.795	1.782.052	1.875.625	1.898.298	1.988.273	2.097.648	2.213.667
Turismoaren beste osagai batzuk	1.695.157	1.841.105	1.906.823	2.032.546	1.947.805	1.906.150	1.924.373	1.924.310	1.904.846	1.932.928	2.021.563	2.085.621
Turismoko gastua, guztira(%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	47,0	46,9	46,6	44,7	45,0	47,3	48,1	49,4	49,9	50,7	50,9	51,5
Turismoaren beste osagai batzuk	53,0	53,1	53,4	55,3	55,0	52,7	51,9	50,6	50,1	49,3	49,1	48,5
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa												
Turismoko gastua, guztira	5,5	5,6	5,3	5,4	5,4	5,4	5,5	5,8	5,8	5,9	6,0	6,1
Turismo hartzailea	2,6	2,6	2,5	2,4	2,4	2,6	2,7	2,9	2,9	3,0	3,0	3,1
Turismoaren beste osagai batzuk	2,9	3,0	2,8	3,0	3,0	2,8	2,8	2,9	2,9	2,9	3,0	3,0

Oinarria 2015

(a)Aurrerapena

Data 2018ko Otsailaren 23a

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu sateliteak

Irdia 8. Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena. BPGaren gaineko balio absolutua eta ehunekoa.

2016ko datuen⁷ arabera, bidaiari mota hau etori zaigu Euskal Autonomia Erkidegoara: txangozalea (%82,9); frantziar jatorrikoa (%43,1); aireportuz (%41,4) edo errepide bidez (%56,2) iristen dena; merkatuko ostaturia erabiltzen duena (76,5%); aisialdia, atsedendaldia edo oporrak bidaiatzeko arrazoitzat duena (%68,9); 5,4 eguneko bidaiak egin eta 162 euroko batez besteko gastua egiten duena eguneko.

Atzerriko bisitariari dagokienez, estatuko autonomia erkidegoen artean 7. postuan dago Euskal Autonomia Erkidegoa, %1,9 portzentaiarekin; estatuan, Kataluniak du lehen postua, %23,8rekin.

⁷ Frontur – Euskal Autonomia Erkidegoaren datuak

http://www.euskadi.eus/contenidos/estadistica/frontur/eu_def/adjuntos/Frontur_2016.pdf

Garapen Jasangarirako Nazio Batuen helburuen esparruan, eta Euskadi 2020 plangintza estrategikoaren barnean, **Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko 2017-2020 Plan Estrategikoak** hiru helburu nagusi ditu turismoaren eremuan: (

- 1) Euskadi sendotzea kalitateko helmuga gisa,
- (2) euskal gizarteari eta sektoreari aberastasuna eta oparotasuna ekartzea, eta
- (3) turismo iraunkorraren ikuspegia baliatzea.

Turismoari dagokienez, 7 ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da:

- Aparteko eskaintza turistikoa bat sendotzearen alde apustu egitea, turistaren biziklo osoan zehar.
- Marketin berritzaile eta eraginkor bat hedatzea, xedetzat hartutako merkatuetan eskari handiagoa sortzeko helburuz.
- Mekanismoak garatzea turista izan dadin ekonomiaren eta gizartearen aurrerabidearen, aberastasunaren, eta enpleguaren eta bizitzaren kalitatearen eragileetako bat.
- Euskadiko turismoaren garapenaren printzipio gidari gisa iraunkortasuna ezartzea eta hazkunde-eredu iraunkor eta arduratsu baten alde apustu egitea
- Euskal turismoaren industrian lehiakortasuna sustatzea eskaintza dibertsifikatu bat egiteko.
- Gune turistikoen eta baliabideen erabilera antolatzeke eta planifikatzeko tresna egokiak jartzea.
- Kudeaketarako eta gobernanzarako sistema berri bat sortzea, informazioan, gardentasunean eta konfiantzan oinarritua, koordinazio handiagoa sustatuko duena euskal administrazioko maila desberdinen eta sektorean jarduerak garatzen dituzten eragileen eta herritarren artean.

Basquetour turismoaren euskal agentziak, **Euskal Kostaldearen Turismo Gida Plana**⁸ idatzi zuen 2016an, Euskal Kostaldearen lehiakortasuna hobetu eta bere posizionamendua finkatzeko xedek hartuta. Testuinguru horretan, 27 udalerriri hartzen dituen eremu horren trazio-elementuetako bat da Zumaia. Bost erakunde instituzional, 16 ordezkari eta gutxi gorabehera 850 enpresa eta erakunde dira sektoreko eragile.

⁸ Euskal Kostaldearen Turismo Gida-Plana. Laburpen exekutiboa.

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_de_turismo/eu_planes/adjuntos/PDTCV_Laburpen_exekutiboa_Eus_DEF.pdf



Irudia 9. Euskal Kostaldeko Udaleriak. EKTGP (2016), Basquetour.

“Euskal Kostaldea –potenzial handiko gune turistikoa– diseinatzea eta egituratzea, iraunkortasunean oinarritutako estrategien bidez. Estrategiok gai izan behar dira errentagarritasun ekonomikoa eta euskal itsasbazterrak gordetzen duen ondare kultural eta naturalaren zaintza uztartzeko, bai eta produktu turistikoa berriak sustatu eta sortzeko ere.” Basquetour. Euskal Kostaldearen Turismo Gida-Plana. Laburpen Exekutiboa.

3. Turismoa eskualdean (Explore San Sebastian Region, Urola Kostaldea, Urola eta gizarte mugimenduak)

- **Explore San Sebastian Region**



Aldundiak, Explore San Sebastian Region marka turistikoaekin, Gipuzkoako eskualdeetako herriak eta hiriburua sartzen ditu bere eremu geografikoan eta alor hauetara bideratutako ekintzak jorratzen ditu:

- Lurraldetasun oreka lortzera zuzendutako ekintzak.
- Urtaroka oreka lortzera zuzendutako ekintzak.
- Giza kapitala hobetzekoak.
- Helmugaren nazioartekotzea.
- Azpiegitura eta irigarritasuna hobetzea.
- Anlisi eraginkorra eta gobernantza (turismo mahaia eta behatokia).

Gipuzkoako turismoaren %90 hiriburuak, haren metropoli-guneak eta kostaldeko herriek jasotzen dute. Barneko herriek bisitari kopurua txikia hartzen dute, %10aren inguru.

Gipuzkoan, 2011 eta 2017 bitartean, bisitari kopurua 863.000tik 1,1 milioira igo da; Gipuzkoako kostaldean, berriz, 230.000tik 300.000rako igoera izan da.

Gipuzkoan, 285 ostatu establezimendutik %53 hiriburuan kokatzen dira. 181 landetxe daude, eta %43 daude kostaldean.

Zumaia inguruan, baliabide turistiko aipagarriak daude; besteak beste, Balenciaga museoa Getarian, eta Ekainberri Zestean.

- **Zumaia Urola Kostako Udal Elkartean (Zumaia – Getaria – Zarautz – Orio – Aia)**



Hilero biltzen da turismoko lan-mahaia, eta Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkari bat eta bost udalerri horietako turismo teknikariak edo haien ordezkariak izaten dira bilera horietan. Eskualdeko turismoa dinamizatzeko ekintza, proiektu eta estrategia bateratuak lantzen dituzte. Hauek dira aipagarrienak:

- **Itsas ondarearen sustapena:** hitzaldi ibiltariak azaroan.
- **Kosta Gastronomika:** eskualdean gastronomiak duen garrantzia ikusirik, 5 enbaxadore izendatu dira. Orion bisigua, Aian gazta, Zarautzen azoka, Getarian txakolina, eta Zumaian Olagarroa. Publizitate kanpainak egin dira hurbileko publikoari zuzenduta.
 - o Esperientziak:
 - Txakolinaren ibilbidea, Getarian.
 - Flyscheko olagarroa, Zumaian.
 - Bisigua Orio estilora, Orion.
- **Mendi ibilbideak:** eskualdeko ibilbide nabarmenak jasotzen ditu eskualdeko ibilbideen mapak.
- **Sustapena:**
 - o Argitalpenak:
 - Eskualdeko irudi foiletoa.
 - 10 arrazoi Pagoetako Parke Naturalera hurbiltzeko.
 - Ostatuen gida
 - Jatetxeen gida.
 - Mapa gastronomikoa.
 - o Webgunea: kostaldea.eu / Costavasca.org

- **Dinamizaziorako 2018-2021 plana:**
 - o Helburu estrategikoa. Turismoa modu jasangarri batean landuta, eskualdearen garapen sozioekonomikoa indartzea:
 - Urola Kostaren eskualde-irudia indartzea eta zabaltzea.
 - Urtarokotasuna deuseztatzeko ekintzak lantzea.
 - Turismo jasangarri baten aldeko apustua egitea.
 - Gure eskaintza proposamena "familiarizatzea"/ erraztea.
 - Herritarrak kontzientziaztea, turismoaren onurak zabalduz herrietan zehar.
 - Eskualdeko turismo sarea indartzea, elkarlanerako bideak zabalduz eta sustatuz.
 - o Kokapen turistikoa:
 - Gastronomia.
 - Arrantza.
 - Kirola.
 - Geoparkea.
 - Pagoeta.
 - Ibilbideak.
 - Ondarea, tradizioa.
 - Hondartza.
 - o Produktua:
 - Gastronomia.
 - Kultura.
 - Natur baliabideak eta hondartzak.
 - Turismo aktiboa.
 - Galdu ezin ditugun 10 txokoak.
 - Deskonektatzeko joan-etorriak.

Basquetour turismorako euskal agentzia (Eusko Jaurlaritza) eta Foru Aldundiko turismo departamentuarekin lankidetzan hainbat programa ditu martxan eta haiek antolatutako ekintzetan parte hartzen du. Diru-laguntzak jasotzen ditu erakunde hauetatik baita.

- Euskadi gastronomika.
- Surfing Euskadi.
- Euskal kostaldea.
- Kosta Gipuzkoa.
- Familia turismoa.
- Kalitateko programak sektore publiko nahiz pribatuarentzat: jardunbide egokiak (SICTED), Ekolabel, IKT (informazio eta komunikazio teknologiak)...
- Prestakuntza sektore publiko eta pribatuari zuzenduta: Anfitriones programa.
- Turismoko azoketan presentzia: Fitur, Sevatur, Expovacaciones, Intur...
- Eskualdeko baliabideak ezagutzeko bisitak (prentsa eta profesionalak).
- Publizitate kanpainak.

- San Sebastian Region turismo bulegoan eskualdeko presentzia.

Era berean, eskualdeko jarduera turistikoen esperientziak elkartrukatzeko foroa da eskualdeko turismo mahaia.

Datuak:

Urola Kostan ere bisitarien kopurua hazi egin da azken urteetan. 2017an, ordea, bisitari kopurua %-3,90 murriztu da. Aia, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaiako udalerriek osatzen dute Urola Kosta eskualdea.

	Zumaia	Getaria	Zarautz	Orio	Aia	UROLA KOSTA
2012						68.820
2013	30.487	23.574	26.930	9.994		90.985
2014	39.038	32.057	35.781	10.112		116.988
2015	41.244	37.578	43.386	11.771		133.979
2016	48.691	45.044	46.321	11.946		152.002
2017	43.531	45.571	46.158	10.589		145.849

Taula 1. Urola Kostako bisitariak. Jatorria: Zumaiako Turismo Bulegoa.

2012-2017 urteen bitartean, hau izan da emakumezko eta gizonezkoen arteko banaketa Zumaiako bisitarien artean:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
EMAKUMEZKOAK	13.607	17.076	21.585	22.734	26.660	23.700
GIZONEZKOAK	11.726	13.411	17.453	18.510	22.031	19.831
GUZTIRA	25.333	30.487	39.038	41.244	48.691	43.531

Taula 2. Bisitariak, emakumezkoak eta gizonezkoak. 2012-2013. Jatorria: Zumaiako Turismo Bulegoa.

2017. urtean, hau izan da bisitari kopurua biztanleko Zumaia eta eskualdeko udalerritan:

Udalerria	Biztanle kopurua	Bisitari kopurua	Bisitari biztanleko
Zumaia		43.531	4,36
Deba	5.502	30.377	5,52
Mutriku	5.375	12.191	2,27
Getaria		45.571	16,19
Zarautz	23.118	46.158	2,00
Orio	5.857	10.589	1,81

Taula 3. Zumaia eta inguruko udalerriek jasotzen duten bisitari kopurua biztanleko, 2017. Urtean.

- **Zumaia Urola Ekimenean (Zumaia – Zestoa – Aizarnazabal – Azpeitia – Azkoitia – Beizama – Errezil)**



2002. urteaz geroztik, Urola bailarako zazpi udalerrik garapen turistikoko proiektu honetan parte hartzen dute, ondare naturala, ondare historiko artistikoa eta ondare kulturala balioesteko. Web orria: www.urolaturismoa.eus

Hauek dira Urolako proiektu nagusiak:

- **"5 Geltoki"**, familia turismoari zuzendutako produktu turistikoa da. Bailarako bost museo nagusiak ardatz direla, berariaz familiei zuzendutako produktua artikulatu da. Museoak bisitatuta, eskualde osa bisitatzea iradokitzen du,.
- **"Urola Gustagarri"**, "bertakoari" balioa emateko proiektu gastronomikoa. Zer da bertakoa? Bertako produktuak, ekoizleak, sukaldariak, jatetxeak, tabernak, sukaldaritza, azokak, etab.
- **"Ignaziotar lurraldea"** produktu turistikoa, Loiolako Ignaziok egindako erromesaldiaren berri emateaz gain, bere bizitza eta lurraldea ezagutarazi nahi ditu.
- www.urolaturismo.eus webguneak turistikoa ahalik eta xehetasun gehienekin azaltzen du bailarako baliabideak eta eskaintza.
- **Beste euskarri turistikoa batzuk:** mapak eta liburuxkak.

Hauek dira Bailarako eskaintza nabarmenak:

- o **Bisitak gune turistikoetara**, Loiolako santutegia, Tren museora, Ekainberrira, Lili jauregira eta Algorri Interpretazio Zentrora, "Bost Geltoki" ekimenaren bidez.
- o **Monumentuak eta altxorrak** ezagutzeko aukera.
- o **Mendi ibilbideen sarea**, homologatutako hainbat ibilbide proposatzen ditu.
- o **Ignaziotar lurraldea** ezagutzeko aukera. Loiolako Ignaziok egin zuen erromesaldiaren euskal ibilbidea egiteko aukera ematen du, "Ignaziotar bidea" proiektuan. Lurralde honen barruan, "Hiru tenpluen ibilbidea" ere egin daiteke.
- o **Esperientzia turistikoa edota bisita gidatuak:** "Lurrun tren", "Ekain abentura", "Agur Lili", "Touring eskualdean", "Gure baserriak", "Flyscharen ibilbidea", "Zu ere pilotari, Azkoitian", "Sastarrain", eta beste hainbat bisita gidatu.
- o **Bertako gastronomia produktuen eta jatetxeen sustapena**, "Urola Gustagarri" ekimenaren bidez, "Pintxo Tour" eta "Gure baserriak" esperientzien bidez, eta webgunean bertako jatetxeei buruz ematen den informazioaren bidez.



Zumaiaiko Udala

Zumaiaiko Turismo sailak lankidetzan estuan dihardu "Iraurgi berritzen" agentziarekin eta udaletako teknikariek, eta Urola ekimeneko proiektu eta eskaintza hauetan parte hartzen du: "Bost geltoki", "www.urolaturismo.eus" webgunea eta beste euskarri turistiko batzuen argitalpena, mendi ibilbideen sarea, esperientzia turistikoak eta bisita gidatuak.


Urola ekimena osatzeko, urtean hiruzpalau aldiz biltzen da teknikari taldea, eta bilera horietan erabakitzen dituzte zer ekintza eta proiektu egingo diren urtero eta nola gauzatuko diren.

c. Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea



Zumaia, Deba eta Mutriko udalerriek osatzen dute Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea, eta Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko kide da, 2010. urteaz geroztik. Hiru udalerriez aparte, bazkide dira Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza, UNESCO Etxea, Aranzadi Zientzia Elkarte, Debemen, Urkome, Debegesa eta Urola Kostako Mankomunitatea. Horrekin batera, Geogarapen Elkarteak lankidetzarako hitzarmen bat du UPV-EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatearekin.

GLOBAL UNESCO GEOPARKS BY COUNTRY (2018)



Irudia 10. Zumaia, Unescoren munduko Geoparkeen mapan.

Geogarapen Elkarteak kudeatzen du Euskal Kostaldeko Geoparkea eta elkartearen estatutueta jasotako helburu⁹ hauek ditu:

- Lurraldearen garapen iraunkorra eta orekatua, lurralde horretako balio geologikoak, naturalak eta kulturalak babestuta bereziki, lurraldean bizi diren pertsonentzako mesedegarri diren ekintzak garatuz eta jarduerak abian jarritz.
 - Lurraldearen ondare naturala babestea eta zaintzea, garrantzi berezia emanez ondare geologikoari, baita baliabide gisa balioa ematea ere, lurralde horretako herritarren garapen ekonomikoa eta soziala lortzea helburu izanik.
 - Lurraldean lurreko zientziak, natura zientziak eta ingurumen zientziak sustatzea ikerketaren esparruan, hezkuntza arautuan eta arautu gabeen eta hedapenaren eremuan.
 - Ondare kulturalari balioa ematea eta hura dinamizatzea, berreskuratzea eta hedatzea.
 - Ondare kultural material eta immaterialaren alorreko jarduerak sustatzea eta egitea (tradizioak, ohiturak, lanbideak, ahozko memoria, sormen artistikoa, etab.), eta lehentasuna ematea ondare geologikoarekin, paleontologikoarekin eta arkeologikoarekin lotura handiena duten jarduerari.
 - Ingurumen-arloko hezkuntza sustatzea, lurraldearen berezko balioak kontuan hartuz.
 - Natura-turismoa sustatzea haren balio geologikoak kontuan hartuta, eta kultura-turismoa sustatzea, iraunkortasun-esparruaren barruan.
 - Turismo-kultura eta lurraldearen eskaintza hobetzea.
 - Geoparkeen helbururekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak dinamizatzea, eta bereziki, tokiko produktuen ekimenak babestea.
- Eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko ekintzak sustatzea eta egitea, hau da, elkartearen helburuak sustatzen lagun dezaketen ekintzak.

Proiektu hau aurrera eramateko, Geogarapen Elkarteak 4 urterako **Ekintza Plana du, 2016-2020 Plan Estrategikoaren bost lan ildo jarraitzen ditu:**

- Zientzia, hezkuntza eta kultura;
- Lurraldea eta kontserbazioa;
- Geoturismoa; Gestio eta komunikazioa; eta,
- Garapena eta jasangarritasuna.

⁹ https://geoparkea.eus/eu/geogarapen-euskal-kostaldeko-geoparkearen-kudeaketarako-elkartea?lang_code=eu



Irdia 11. Euskal Kostaldeko Unescoren munduko Geoparkea. Liburuxka turistikoa.

Euskal Kostaldeko Geoparkean antolatzen diren 15 bisita gidatu turistikoen artean, bederatzi Zumaian egiten dira: irteera geologikoa, Algorri bisita gidatua, *Flysch*a begirada batean, Zumaia Debara itsasontziz, Debatik Zumaia itsasontziz, *Flysch*aren ibilbidea, marearteko zabalgunea, *Flysch*eko olagarroa eta Enigma bizia.

2017. urtean, 14.000 bisitari izan dira Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkeko bisita gidatuetan. 2016an, bisita gidatuetan 11.054 bisitari parte hartu zuten, aurreko urtean baino %50 gehiago (7.348 bisitari 2015ean).

2017an, 86.093 bisitari pasa dira Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkean osatzen duten hiru udalerrietatik, aurreko urtean baino **%-5,88 gutxiago**.

Udalerria/urtea	2016	2017	% aldea
ZUMAIA	48.691	43.531	-10,60
Emakumezkoak	26.660	23.700	-11,10
Gizonezkoak	22.031	19.831	-9,96
DEBA	30.383	30.371	-0,04
Emakumezkoak	14.970	15.472	+3,35
Gizonezkoak	15.413	14.899	-3,33
MUTRIKU	12.398	12.191	-1,67
Emakumezkoak	6.490	6.355	-2,08
Gizonezkoak	5.908	5.836	-1,22
GEOPARKEA	91.472	86.093	-5,8
Emakumezkoak	48.120	45.527	-5,39
Gizonezkoak	43.352	40.566	-6,42

Taulara 4. Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkeko udalerrietako bisitariak. Jatorria: Zumaiaiko Turismo Bulegoa.

Geoparkea ezagutzeko ekintza ezagunena da bisita gidatuen, baina abian dira beste proiektu hauek ere:

- **Geo ibilbideak.** Geoparkea eta Biotopoa ezagutzeko homologatutako ibilbideak erabiltzea bultzatzen du. Horretarako, mapak egin dira eta interpretazio panelak jarri dira ibilbideetan dauden "interes guneeetan".
- **"Geoparke-zaleak" eta "geo-eskolak".** Sektore pribatua eta hezkuntza arloa (ikastetxeak) Geoparkearen garapenean inplikatzeko sareak dira. Haiek konpromiso batzuk hartzen dituzte Geoparkearekin, eta horren truke, beraiekin lankidetzat estuan lan egiten da eta sustapen bereziak egiten zaizkie.
- **Ikerketak arlo zientifikoan.** Geoparkeak hitzarmenak egin ditu, besteak beste, EHU-UPVrekin, Zaragozako Unibertsitatearekin eta Aranzadirekin, Geoparkarentzat interesa duten gaien gaineko ikerketa zientifikoak egin ditzaten.
- **Ingurumen ekintzak boluntarioekin.** Urtero ekintza puntualak antolatzen dira boluntarioekin ingurumena zaintzeko eta balioan jartzeko; adibidez, itsaslabarrak garbitzeko ekimena, zuhaitzak landatzeko ekimena, etab.
- **Euskadiko Geodibertsitate jardunaldien** edizio batzuk antolatu ditu Geoparkeak, eta hemendik aurrerakoak antolatzeko aukerak ditu.
- **Geo-Talks.** Zientzia, kultura, umorea eta musika ustartzen dituen apustu berritzailea da. Lehen edizioa Donostian egin zen "Olatu Talka" ekimenaren barnean. Zientzialariek eta artistek zenbait ekintza egin zituzten, eta, besteak beste, hitzaldi laburrak eman zituzten, Euskal Kostaldeko Geoparkearen balioak ikuspegi ezberdinetatik aztertzeko. Bigarren edizioa Geoparkean bertan egiteko asmoa dago.

Horrez gainera, gogotsu parte hartzen du **Europako eta Munduko Geoparkeen sareek antolatzen dituzten ekintzetan** (bilkuretan, kongresuetan, hitzaldietan, etab.)

Urtero Europako Geoparkeen Sarearen "**Geoparkeen Astea**" ospatzen da Euskal kostaldeko UNESCO Geoparkean. Maiatzaren 26tik ekainaren 3ra egingo da 2018. urtekoa, eta hainbat hitzaldi, doako bisita gidatu, marrazki lehiaketa eta kanpo ekintza hartuko ditu.

d. Zumaia

i. Zumaiaiko turismo saila



2002. urtean, Zumaiaiko Udalak lehen aldiz kontratatu zuen turismo teknikari bat, eta urte horretako uztailean zabaldu zuen Kantauri plazako turismo bulegoa. Horrela, turismoa indartzeko eta garatzeko apustu sendo bati ekin zion. Neurri horiek hartu aurretik, Aste Santu eta udaran soilik zabalitzen zen turismo bulegoa, aldizkako kontratazioak egiten ziren, eta ez zuen egitura eta antolamendu egonkorrik.

Turismoko, merkataritzako eta ostalaritzako gaiak lantzen ditu Turismo sailak, eta Zumaiaiko Udal Turismo Bulegoan du egoitza. Bi funtzio nagusi betetzen ditu:

1. Harrera zerbitzua: turismo bulegoan sartu eta mostradore atzean ematen den zerbitzua da. Harrera azkarra eta harrera pertsonalizatua bereizten dira, autozerbitzu gunearekin batera. Zumaiaara datozen bisitariari harrera ematea, informazioa ematea eta zerbitzu turistikoak eskaintzeko nahiz oporraldietarako edo aisialdirako lekuak aukeratzen ari diren bisitariari informazioa eta zerbitzu turistikoak eskaintzea du helburu.

Horrez gain, Zumaiaiko eta eskualdeko biztanleei zuzendutako beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, udal zerbitzuei laguntzeko batzuk, eta herriko hainbat elkarteren produktu edo zerbitzuak saltzeko, beste batzuk.

Harrera zerbitzuaren ordutegia oso zabala da, urte guztian zehar zabalik dago eta bi sasoi bereizten dira:

NEGUKO ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00 // 16:00 - 19:00

Igande arratsaldeak eta astelehenak itxita.

UDAKO ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00 // 16:00 - 20:00

Egunero zabalik, ekainaren 15etik irailaren 15era arte.

2. Dinamizazioa: turismoaren arloan herrirako estrategia egokiak finkatzea eta proiektuak antolatzea, betetzea eta jarraipena ematea da atal honen eginkizun nagusia.

2002. urtean, turismo teknikariaren lanpostuaren sorrerarekin, turismoa dinamizatzeko aro bati ekin zitzaion. Hainbat baliabide zeuden herrian, museoak (pribatuak), parrokia,

ibaia zeharkatzen zuen txalupa bat, natur baliabide garrantzitsuak, flyscha eta ondare geologiko aparta.

Ordura arte, turismoaren sustapena liburuxken bidez egiten zen soilik, eta, ordutik aurrera, herriko eskaintza egituratzen hasi ziren. Zerbait ezberdina eta bereizgarria sortu nahi zuten. Horrela, 2002ko uztailan hasi eta abendura bitartean, lehen bisita gidatuak antolatu ziren lankidetzaren eredu publiko-pribatu berritzaile baten bidez: bezeroarentzat salneurri erakargarria izango zuen bisita gidatuen eskaintza sortu zen banakakoentzat urte guztian zehar. Egun eta ordu jakinetan egiten zen eskaintza, finantzaketa publikoarekin lagunduta. Lehen bisita haiek ondorengoak izan ziren:

- > Zumaia (kulturala): Beobide eskultorearen museo-etxea, San Pedro parrokia, Urola ibaian zehar itsasontziz paseatu ondoren, Ignazio Zuloaga margolariaren museo-etxera bisita.
- > Algorri – Itzurun: bisita geologikoa.
- > Zumaia-Deba-Zumaia (kostaldean zehar trekkina): baserri giroa, marearteko zabalgunea, geologia eta paisaia. Debatik Zumaia buelta trenez.

Lehen urte hartan 27 bisita gidatu programatu ziren eta haietatik 17 burutu ziren, gainontzekoak eguraldi txarreatatik edo parte hartzaile faltagatik bertan behera utzi ziren. 17 bisita gidatu horietan 218 pertsonak hartu zuten parte.

Bista gidatuen arrakastaren ondorioz, Deba eta Mutrikuko udalekin Geoparkeko proiektua gauzatu zen. Orduz geroztik, hasieran finkatutako ereduarekin jarraitu da, eta 2017an, guztira, 1200 bisita gidatu programatu dira eta 18.000 pertsonak hartu dute parte.

Bisita gidatuen eskaintzatik Geoparkera:

2003an martxotik urrira arte zabaldu zen eskaintza. Urola kostatik, bisita gehiago sortu ziren eta sustapena ere eskualde osoan egin zen.

Enpresa pribatuak taldeentzat bisita gidatuak eta antzeko ekintzak eskaintzen hasi ziren.

2005 urtera arte, bisitak indartzen joan ziren. Urte horretan Algorri Interpretazio zentroa zabaldu zen. Natura eta geologiaren dibulgaziorako ekipamendu berri horrekin eta bisita gidatuen eskaintzarekin, Zumaia geoturismorako gune garrantzitsuenetako bat da orduz geroztik. Prentsan izandako oihartzuna onuragarri izan zen bisita gidatuen kopurua handitzeko.

2006an, inbertsio pribatuari esker, Deba eta Zumaia arteko kostaldeaz itsasotik gozatzeko aukera eman zen, bisita gidatuen bidez. Orduan ekin zitzaion Debako Udalarekin dagoen elkarlanari.

2007an, Mutrikuko Nautilus interpretazio zentroa ireki zen, bertako geologiari eta, batez ere, Jesus Narvaez-en fosil bildumari eskainia.

2008 urtean, "Flyscharen ibilbidea" proiektua sortu zuten Zumaia, Deba eta Mutrikuko udalek. Hiru udalen arteko lehen hitzarmena izan zen. Geoturismoko 100 bisita gidatu programatu ziren hiru herrietan, www.flysch.com webgunea sortu zen, eta sustapenerako argitalpen bateratuak egin ziren. Hiru herriak txalupaz lotzen zituen bisita gidatua sortu zen "flyscharen ibilbidea" izenarekin. Algorri eta Nautilus zentroa ere barne hartzen zituen bisita honek. Urte horretan, 5.200 parte-hartzaile izan genituen bisita gidatuetan.

2009an, bisiten kopurua eta barietatea handitu zen, 150 bisitako egutegia osatu arte, martxotik azarora. www.flysch.com (gaur egun www.geoparkea.eus) webgunean erreserbak eta ordainketak on-line egiteko sistema bat ezarri zen. Aurrerapauso garrantzitsua izan zen turistek bulegoetatik pasa gabe bisiten erosketak ordenagailuz edo mugikorretik egiteko aukera izatea.

2009an, biotopo babestuaren izendapena eskuratu zen Zumaia eta Deba arteko kostarentzat. Hori ere onuragarria izan da Algorri zentroko bisitarien kopurua igotzeko eta bisita gidatuen eskaria handitzeko.

Hiru udalek, turismoa garatzeko hitzarmena izenpetzeaz gain, geologian, zientzia eta ingurumenean, kulturean, euskaran eta herritarren partaidetzan oinarritutako lurralde garapenerako Geoparkeko proiektua martxan jartzea erabaki zuten.

2010ean, prestaketa lan azkar eta saiaturia egin ondoren, Geoparkeko sarean sartzeko hautagaitza aurkeztu zen. 2011-2014 ekintza plan bat aurkeztu zen. Debegesa, Debabarrena eskualdeko garapen agentziako turismo saileko zerbitzua, kontratatatu ziren prestaketa hori guztia egiteko.

2010. urtean, 200 bisita programatu ziren. Turismoko Euskadi saria irabazi zuen "Flyscharen Ibilbidea" proiektuak. Geoparkeko hautagaitza aurkeztea erabakigarria izan zen saria eskuratzeko.

Gaur egun, Geoparkeko proiektuaren estrategia jarraitzen du Udalak, eta elkarrizketetan jasotako iritziek diote herritarrek begi onez ikusten dutela eredu hau.

Zumaiaiko Udaleko lau teknikariek hartzen dute parte: kultura, euskara, ingurumen eta turismoko teknikariek. Zuzendaritza batzordeko kide da Zumaiaiko alkatea.

Bistakoa da dinamizazio lanaren garrantzia. Zumaia eskaintza singularra edo berezia du gaur egun, eskaintza bideratua duelako eta Udalak inbertsioak eta apustu garbiak egin dituelako. Ondorioz, turista eta bisitari profil konkretu batzuentzat erakargarri da Zumaia, eta beste batzuentzat ez da hain erakargarria. Ahalegin handia egin da Geoparkeen sareko kide izateko. Bideratutako estrategia baten ondorioz lortu da hori, dinamizazio lan sakon baten ondorioz, alegia.

Horrez gainera, bertako orografia kontuan izanda, Urola bailararekin lankidetzan dihardugu 2002. urteaz geroztik. Bestalde, urte horretatik bertatik hasita, lan handia egiten da Urola Kosta eskualdeko kideekin, eskualdeko turismoa dinamizatzeko. Hori guztia zehazteko atal bat du dokumentu honek.

2003ko abenduaz geroztik, Euskadiko turismo bulegoen Itourbask sareko kide da Zumaiaiko turismo bulegoa.

Turismo bulegoak kalitate sistema bat barneratu zuen 2008 urtean, eta urtero Q kalitate ziurtagiria berritzen da, ikuskaritzak pasa ondoren.

Bi zerbitzuak (harrera eta dinamizazioa) betetzeko, **hiru langile** ditu urte guztian:

- *Turismo teknikaria*: sail guztiaren ardura du eta dinamizazio lana egiten du.
- *Bi turismo teknikari laguntzaile*: harrera zerbitzua bete eta dinamizazioan laguntzen dute.
- *Udako langileak*: Harrera zerbitzua soilik betetzen dute uda garaian, turismo bulegoan eta Amaia Udalaren plazako informazio puntuan.

Hauk dira langileen zereginak:

- Harrera zerbitzu osoa betetzea:
 - Bulegoan bertan, emailez, telefonoz eta beste bide batzuetatik jasotako informazio eskaerak hartzea.
 - Astero Itourbask programan datuak sartzeko eta urteko estatistikak egitea.
 - Astero biltegiko estokaren kontrola egitea eta falta diren produktuak eskatzea.
 - Liburuxkak eta gainerako euskarriak eguneratzea.
 - Web orriak eguneratzea (www.zumaia.eus/turismoa, www.costavasca.org, www.urolaturismo.eus, etab.).
- Geoparkeko bisita gidatuak kudeatzea:
 - Bisita bat egingo den ala ez erabakitzea.
 - Kantzelazioen kasuan, abisuak eta diru itzulketak kudeatzea.
 - Hileroko bisiten likidazioa egitea.
 - Urte bukaerako bisita gidatuen likidazioa eta balorazioa egitea.
 - Bisita berriak proposatzea edo daudenak hobetzea.
 - Geoparkeko web orrirako hobekuntza proposamenak egitea eta edukien jarraipena egitea.
- Kalitate sistema kudeatzea:
 - Informazioa eta harrerako atalaren jarraipena egitea.
 - Azpiegitura eta mantenuko atalaren jarraipena egitea.
 - Hornikuntza eta marketin atalaren jarraipena egitea.
 - Urteko txostenaren zirriborroa prestatzea, datu eta estatistikekin.
 - Marketin planaren zirriborroa prestatzea.
 - Prestakuntza proposamena egitea.
 - Urteko auditoriarako prestatzea.
- Turismo saileko arduradunaren zuzendaritza zereginak:
 - Turismo batzordeetan parte hartzea eta bertako erabakiak bideratzea.
 - Kalitate sistemak finkatutako helburuak, adierazleak eta hobekuntza ekintzak bideratzea eta betetzen direla gainbegiratzea.
 - Bulegoaren funtzionamendu egokirako langile-egutegiak egitea.

- Turismo sailaren urteko aurrekontua kudeatzea eta diru laguntzak eskatu eta zuritzea.
 - Turismo Sailaren jarduera guztien urteko memoria egitea.
 - Urtean zehar egin beharreko ekintzak nahiz haien maiztasuna zehatzea eta jasotzea.
 - Zumaiaiko sektore turistikoa harremanak sustatzea eta jarraipena egitea.
 - Zumaiaiko merkataritza bultzatzea.
 - Eskualdeko bileretara joatea, proiektuei jarraipena egitea (Urola Kostakoak, Urola Ekimenekoak nahiz Geoparkekoak), eta egiten diren sustapen kanpainen parte hartzea.
 - Hornitzaileekin harremanetan egotea eta haiekin bilerak egitea, proiektu guztien berri emateko eta haien ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko.
 - Bulegoko zerbitzuak emateko behar diren euskarri guztien jarraipena egitea eta gainbegiratzea, urteko aurrekontuetan aurreikusitako baliabideen arabera eta urte osorako stock nahikoa izateko moduan.
 - Turismo saileko gaien bilera-deialdi guztietan parte hartzea eta haiei jarraipena ematea.
 - Eskualdean eta Zumaian interes turistikoa duten proiektuak proposatzea eta garatzea. Produktuak sortzea.
 - Informazioa eta aholkularitza eskaintzea Zumaiaiko turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreko profesionaleri.
- Beste ekintza batzuk:
 - **Erromesen aterpea.** Urtetik urtera gero eta arrakasta handiagoa izaten ari da aterpearen zerbitzua, eta, ondorioz, urtero denboraldia luzatzen ari da azken urteetan. Kudeaketa, gaur egun, "Donejakue Bidearen Lagunen Elkartearen" bitartez egiten da.
 - **Olarro Eguna.** Turismo Bulegoa da Olarro Egunaren antolatzailea. Zumaiaiko hainbat elkarte boluntarioren lankidetzan koordinatzen du, udaleko beste sail batzuen laguntzarekin.
 - **Industria eta Itsas ondarea ezagutaraztea eta balioan jartzea.** Zumaiairen iraganeko jardura nabarmenek herriari eman dioten ondarea interpretatu eta balioan jartzeko asmoa du Turismo sailak aspaldidanik. Beti dago, alde horretatik, herriko elkarteekin eta ekimenekin lankidetzan jarduteko prest.
 - **Kultura ondarea eta ondare ukiezina ezagutaraztea eta balioan jartzea.** Ekimen askotan parte hartzen da, lankidetzan, bertan ditugun baliabideak ezagutarazteko. Horrez gainera, bisita gidatu berri bat sortu da euskara eta euskal kultura ezagutarazteko: "Enigma bizia". Geoparkean salduko dira txartelak.
 - **Seinalizazio turistikoa.** Zumaiaira iristen diren turistek eta bisitariak seinale egokiak behar dituzte ikusi nahi dituzten lekuetara joateko eta leku horien berri izateko.
 - **Autokarabanentzako gunea.** Azken urteetan proiektua etenda dago kokaleku hobeak aurkitu bitartean, baina eskaera handia izaten jarraitzen dugu.

Kanpinaz gain, gutxieneko zerbitzuak eskaintzen dituen gune bat eskatzen dute autokarabanekek Zumaian.

- **Informazio puntua abuztuan.** Udan asko igotzen da Zumaian turisten eta bisiten kopurua, eta, abuztuan, "informazio puntu" bat zabaltzen da Amaia plazan, haiei arreta hobea emateko.
- **Flysch Trail eta Euskal Kosta Kroa** kirol ekintza garrantzitsuetan parte hartzen da. Argitalpenak osatzen eta antolaketaren beste atal batzuetan laguntzen da (gehigarriak lantzen, informazioa turistikoa banatzen, etab.)

ii. Herriaren profila¹⁰: Zumaia



Irudia 12. Zumaia udalerriaren profila.

¹⁰ Gipuzkoako Foru Aldundiko datuak, 2016ko abenduaren 31n

2017. urtearen amaieran, Zumaia 9.979 biztanle zituen. Horietatik, 5.026 emakumezkoak eta 4.953 gizonezkoak ziren. Jatorriari dagokionez, 5.176 dira Zumaian jaiotakoak, 1.094 eskualdekoak, 1.569 Gipuzkoakoak, beste 286 EAE-koak, eta 1.854 beste lurralde batzuetakoak. Hezkuntza aldetik, 1.473 pertsonak dituzte unibertsitate ikasketak, 2.924 pertsonak bigarren hezkuntzako mailakoak edota lanbide heziketakoak, 1.712 pertsonak lehen hezkuntzako ikasketak. Hezkuntza titulurik gabeko 3.837 pertsona daude, eta alfabetatu gabeko 33 pertsona.

Udalerririk 1.076 hektareako azalera du eta 905,11 bizt/km²-ko biztanleria dentsitatea. 65 urtetik gorakoak %7,81 dira, eta langabezia daudenak %13,9.

Biztanleko BPGa 35.742 €-koa da, eta 18 urtetik gorako errenta 17.954 €-koa da. Jarduera ekonomikoan, BEG datuei begiratuta, industriak %49 eta zerbitzuak %36,5eko portzentajeak erakusten dituzte. Enpleguari dagokionez, 3.571 kontratu sinatu dira.

Euskaraz daki biztanleen %71,54k.

iii. Bertako klima eta mareak

Klima¹¹. Zumaiaiko klima ozeanikoa da. Kantauri itsasoaren hurbiltasunaren eraginez, neguko laztasunak leundu egiten dira, eta udaldiak, berriz, ez dira beroegiak izaten. Haizeak hezeak dira; hodeiak ugariak eta euriak, berriz, sarriak.

Urteko batez besteko tenperatura 13 gradukoa da. Abuztua izaten da hilik beroena, eta urtarrila, aldiz, hotzena. Izozteak ez dira ugari izaten urtean zehar —akaso bost egunetan egin dezake izotza goizaldeko lehen orduetan—, ezta tenperatura altuegiko egunak ere: uda partean tenperatura nekez iristen da 30 gradura, eta gehienez jota ere, hamar aldiz baino ez da 35era heltzen.

Euri-garaia udazkena izaten da, 2.000 l/m² baino zertxobait gutxiagoko maximoekin eta 1.500 l/m²-ko batez bestekoarekin. Uda hasiera izaten da garairik lehorrena eskualde honetan.

Jeneralean haizeak iparraldekoak izaten dira; hegoaldekoak jotzen dutenak urriagoak izaten dira. Haize boladarik indartsuenek udazken eta neguaren bukaeran jotzen dute, batzuetan 80 km/h-ko abiaduraz. Ekaitz gogorak Ipar Itsasoan eta Britainiar uharteetan zentratzen direnean, ipar-mendebaldekoak datozen eta 140 km/h-ko abiadura har dezaketen haize zakarrak sartzen dira. Zenbait kasutan, udaldian bereziki, mendebaldeko haize horiek galerna bihurtzen dira, batez ere tenperatura altuko egunetan.

Mendebal eta ipar-haizeek jotzen dutenean izaten da garairik hezeena. Atlantikotik datozen haize horiek Kantauri itsasoko kostalde ondoko mendikatera hurbiltzen direnean, altxatu eta hoztu egiten dira, euria sorraraziz.

Ipar-ekialde, ekialde eta hegoaldeko haizeen eraginez, aldiz, giroa lehortu egiten da. Lehen biek aire kontinental, lehorra eta hotza ekartzen dute; horrelakotan, zeru oskarbiak egoten dira, eta negu parteko gauetan izotza ere egin dezake.

¹¹ Iturria: Zumaiaiko Turismo webgunea

100 km/h-ko abiaduraraino hel daitekeen hego haize lehorra eta beroak hezetasuna ehuneko 30 edo 40ra jaitsarazten du, eta tenperatura, berriz, 35 gradu ingurura igorarazten du udan.

Mareak. Eguzkia eta ilargiaren indarra dela eta itsasoaren mailak gora eta behera egiten du egunero. Ilbetea eta ilberria denean, lurra, ilargia eta eguzkia lerrotaturik daude eta marea biziak izaten dira orduan. Astroen indarrak gehitzen direnez, itsasgora eta itsasbeherak handiagoak dira. Egunean zehar 4 marea daude, bi itsasgora eta bi itsasbehera, bakoitza sei orduko tartearekin.

Zumaian, UTC edo GMT orduari, udako ordutegian, bi ordu gehitu behar zaizkio eta, neguko ordutegian, ordubete gehiago.

iv. Gune metropolitanoa/hiri-eskualdea

- Kokapena eta mugikortasuna



Irdia 13. Zumaia kokapena eskualdean, hiriburuen erreferentziarekin.

Zumaia bi komunikazio ardatz garrantzitsuren lotune da: Donostia-Bilbo ardatzarena eta Zumaia-Zumarraga ardatzarena. Aspalditik datorkio lotune izaera, Urolako trenbideak Donostia-Bilbo linearekin bat egin zuenetik, alegia. Urolako tren desagertu bazen ere, gaur egun lotune garrantzitsu izaten jarraitzen du Zumaia. Zumarraga eta Azkoitia aldetik etortzeko autobusak daude, eta garai batean trenak egiten zuen ibilbide berbera egiten dute.

Donostia eta Bilbo aldetik etortzeko, berriz, trena dago: 40 minutuan Donostiara iristen da, eta maiztasun handia du, ordu erdiro astegunetan —gutxi gorabehera—, eta pixka bat bakanagoa asteburuetan eta jaiegunetan. Horrez gain, autobusak abiatzen dira Zumaiaetik, Donostiara joan eta handik etortzeko, bai errepide nazionaletik, bai autopistaz. Autobusek ere maiztasun handia dute, eta oso komunikazio ona dugu Gipuzkoako hiriburuarekin eta bidean dauden herriekin.

Kotxez, berriz, bi bide nagusi daude Donostia-Bilbo ardatzean: N-634 errepidea eta Bilbo-Behobia A8 autopista. Zumaiaetik Bilbora 45 minutuko bidea dago autopistaz, eta Donostiara, berriz, 25 minutu ingurukoa. AP-1 autopistaren zabaldu zenetik, Gasteizera 50 minututan iristen da.

Zumaia-Zumarraga ardatzean, berriz, Urola haranean gora doan errepidea dago, hamabost minutuan Loiolara eta, hiru ordu laurden eskasean, Zumarragara eramaten duena. Europako eta munduko hiri handiekin lotzen gaituzten aireportuei dagokienez, Hondarribia (35 minutura), Miarritze (45 minutura), Loiu (50 minutura) eta Foronda (50 minutura) daude eskuragarri.

Distantzia handiko trenak ere ez dira urrun geratzen, Bartzelona edo Madrildik etortzeko, Zumarragan dago geltoki hurbilena. Frantziatik, Abiadura Handiko Trenak eta tren arruntek Hendaian eta Irunen dituzte geltokiak, Donostiatik erraz lotuta.

Azkenik, badira, pixka bat urrutiago, Zumaiaekin bestelako lotura berezi edo metaforiko bat duten beste herri batzuk ere, Zumaglia herri italiarra eta Zud Daira sahararra orain gutxi senidetu baitira Zumaiaekin.

- **Ingurune naturala, itsaslabarrak eta hondartzak**

Gipuzkoa mendebaldeko kostaldean dago Zumaia, Urola ibaiaren itsasoratzean. Herria mendi berdez eta itsaso urdinaz inguratuta dago. Itsasoaren indarrak etengabe moldatzen du itsasertza, eta parekorik ez duen labor eta harralde ikusgarriez osaturiko paisaia eratzen du. Geologia-aitxor horrez gain, Bizkaiko Golkoko zenbait eraketa eta ekosistema aipagarri biltzen ditu Zumaia. Esate baterako, Deba eta Zumaia arteko marearteko zabalguneko ikusgarria —Babestutako Biotopoa izendatua— eta Urola itsasadarreko Batasuneko Garrantzizko Lekua.

Urolako itsasadarra. Gipuzkoako kostaren mendebaldean dago, eta Oikia eta Zumaia arteko Urola ibaiaren bokalea hartzen du. Bokalerako bidean, meandroak irudikatzen ditu ibaiak, eskuin aldetik Artadiko mendi-hegalek babestuta; ezkerreko ibaiertzak, berriz, larre, baso eta partzialki urbanizatutako paduraz osaturiko ibar leuna islatzen du.

Zabalera txikikoa izan arren, enklabeak estuarioetako paisaien tankera du, askotariko guneekin: artadi kantauriarretatik ibai-basoko zatietara, txilardi-otadi oromediterraniarretatik sastrakadi halofiloetara, eta dunetako landareditik estuarioko larre gazietara.

Udalak plan berezi baten bidez babesten du ingurune hori, eta Natura 2000 Sarean sartuta dago. Hiru eremu nagusi ditu: Santiagoko dunak eta Padura; Artadi auzoko artadia eta Beduako meandrea eta uharteak.

Deba eta Zumaia bitarteko itsasertzeko Biotopo Babestua. Deba eta Zumaia bitarteko itsasertz babestuak 8 kilometro inguru eta 4.299 hektareako azalera du. Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko ekosistema guztien artean geologia, paisaia eta naturaren aldetik oso balio handia duten elementuak ditu Biotopo Babestuak.

Besteak beste, itsasertzeko eremuaren geomorfologia nabarmendu behar da, nazioartean oso berezia delako, baina baita zonaren aldaketa antropogeniko eskasa ere. Interes geologiko aparta du, marearteko zabalgunea oso handia baita. Zabalgune hori flysch tertziarioko materialen higadura bereizgarriak eta Kretazeoaren eta Tertziarioaren arteko trantsizioko tarte oso markatuek sortu dute.

Geologia-aldien arteko trantsizioek, paisaiak eta naturak berak, Biotopo Babestu izendatzeko baldintzak betetzen ditu, hau da, berezitasuna, bakantasuna, edertasun ikusgarria eta zientziaren aldetik nazioarte-mailan interes nabarmena duten formazioak izatea.

Itsaslabarrak eta marearteko zabalgunea. Zumaiako Itzurun hondartzatik Debaraino, formazio geologiko ikusgarriak ditugu: geruza bertikalak itsasoaren gainean, paisaia magiko eta paregabeak. Mareak labarren behealdetik atzera egiten duenean, urradura plataforma handia geratzen da agerian, itsasoaren etengabeko higaduraren lekuko, eta bizitza modu ugariaren jagole.

Beste bi hondartzak bezain ezaguna ez den arren, flysch horietan bertan, baina gordeago eta atzerago, Algorri izeneko hondartza dago. Hondar gutxi eta haitz ugari txokoa da, eta urez estaltzen da marea igotzen denean.

Itzurun hondartza. Harea gorrixka eta xehea du Itzurun hondartzak, 270 metroko luzera eta, batez beste, 75 metroko zabalera du. Gipuzkoako kostaldeko gunerik ikusgarrienetako batean dago. Itsaslabar malkartsuak ditu ondoan, eta 150 metroko luzera duten kareharrizko pareta bertikalek zur eta lur uzten dituzte bisitariak. Flysch izeneko fenomeno geologikoaren ondorio dira, mende askotan itsasoak eragindako higaduraren emaitza, alegia.

Itsaslabar ederren artean, Zumaiako erdigunetik oso gertu dago. Hori dela eta, aproposa da uretako kirolak egiteko, hala nola surfa, piraguismoa eta bodyboarda. Bainu zaintza du udako sasoian, eskailera eta arrampak eta instalazio erosoak, dutxak, komun publikoak eta eguzki-oihalak jartzeko gunea, besteak beste. Horrez gain, taberna bat dago hondartzaren alboan eta, metro gutxira, ikuspegi zoragarriak dituen talasoterapia zentro bat.

Santiago hondartza. Zumaiako kanpoaldean dago, Urolaren ibaiaren bokaleko paduren eta Getariara doan N-634 errepidearen artean. Hondartza handia da, 350 metro luze eta 175 metro zabal. Familiarekin edota lagunartean egun pasa joateko leku aparta da. Inguruan gune berdeak daude eta autoa uzteko tokia dago errepidearen ondoan.

Itsasoa bare egon ohi da Santiago hondartzan, baina, tarteka, olatuek astintzen dute. Inguru eder eta lasai horretan hainbat kirol egiteko aukera izango du bisitariak, hala nola windsurfa eta piraguismoa.

Urola itsasadarra.¹² 2014ko martxoan, Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko plan berezia onartu zen. Itsasadarrak 160,3 ha-ko eremua du, Zumaia (%96,4), Getaria (%1,3) eta Zestoa (%2,3) artean. Hauek dira planaren jarduera-ildoak: natura balioak babestea, hobetzea eta lehengoratzeari; natur baliabideen kontserbazioa, hobekuntza eta berreskurapena; paisaia-balioak eta kultura ondarea babestea eta lehengoratzeari;

¹² Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko plan berezia. <https://zumaia.eus/eu/udala/sailak/hiriqaintza-1/ingurumena/behin-behineko-urola-itsasadarraren-plan-berezia>

eta, erabilerak arautzea, ingurumen-informazioa zabaltzea eta sentsibilizazio-lanak egitea.

v. **Jasangarritasuna**¹³

• **Agenda 21**

EAEko 199 udalerrik osatzen dute Udalsarea 21, baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Udalerrien Elkarteak (EUDEL) eta Ingurumen Jarduketarako Sozietateak (IHOBE) ere. Erakunde multzo honek Euskal Autonomia Erkidegoko maila administratibo guztiak hartzen ditu, eta ahalegin guztiak norabide berean gidatzen ditu: euskal udalerrietan garapen iraunkorra eta eraginkorra lortzera.

Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea 2002ko abenduaren 20an osatu zen, eta Zumaia 2006. urtetik aurrera da sareko kide. Maila administratibo guztiak aintzat hartuz, euskal udalerrietan garapen iraunkorra eta eraginkorra lortu nahi du. Hauek dira Zumaiaiko Tokiko Agenda 21aren¹⁴ tokiko ildo estrategikoak:

- Ingurumena kaltetu gabe, tokiko enplegua sustatzeko garapen ekonomikoa bultzatzea.
- Biztanleriaren ongizatea eta bizi kalitatearen hobekuntza solidarioa sustatuko duen programa osatzea.
- Hiri ingurunearen eta ingurumen zerbitzuen hobekuntza.
- Herriko mugikortasun premiak irizpide jasangarriekin asebetetzea.
- Herritarrekiko komunikazioa eta herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea hobetzea.
- Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutaraztea.
- Iraunkortasun (jasangarritasun) irizpideak txertatzea udal kudeaketan.

• **URKOME**

Urola Kostako landa eremuen garapenaren alde egiten duen elkarte da, eta ez du irabazi asmorik. Eskualdeko 11 udalerrri eta eskualdeko nekazaritzako elkarteak ditu kide.

Nekazaritza jarduera eta landa eremuko jarduera ekonomikoak sustatzeko eta landa eremuaren balioak bistartzeko estrategiak egiten ditu.

¹³ Zumaiaiko Tokiko Agenda 21. https://zumaia.eus/eu/udala/sailak/hirigintza-1/ingurumena/agenda-21?set_language=eu

• **Ziurtagiriak**

Zumaian, 2015. Urtean, establezimenduen %1,34k zuen ingurumen ziurtagiria, eta etxebizitzien %66,41ek energia eraginkortasunaren ziurtagiria.

Itzurun hondartzak eta Santiago hondartzak, **ISO14001** Ingurumen Kudeaketaren ziurtagiria dute. Santiago hondartzako zerbitzuen kalitatea hobetzeko lanetan ari dira.

Q ziurtagiria. Turismo Bulegoak Q ziurtagiria du, kalitate oneko zerbitzua emateko helburuarekin. Horretarako, bulegoan informazioa fidagarria ematen da, bertaratzen diren bisitariari arreta ona ematen zaie eta kalitateko jarduerak antolatzen dira.




Irudia 14. Zumaiaiko mapa turistikoa.

vi. Diagnosi sozioekonomikoa:

Atal honetan gaur egun Zumaia duen egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala azalduko dira, eta baita haien bilakaera historikoa ere.

- Bisitarien eboluzioa



Irdia 15. Bisitarien eboluzioa 2003-2007. Zumaiaiko turismo bulegoan jasotako datuetan oinarrituta.

Zumaiaiko bisitarien eboluzioa bat dator turismoak munduan, erkidegokoan eta eskualdekoan ageri duen joerarekin, eta gora egiten ari da.

Bisitarien guztizko kopuruari begiratuta, 2008ko urtean jaitsiera ikusten da, krisiaren hasierarekin batera gertatutakoa. 2010. urtetik aurrera, Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen ibilbide gidatuen eskaintzarekin batera, bisitarien kopurua gora egiten hasi zen.

Grafikoan ikusten da bisitarien kopuruak gora egin duela filmak eta telesailak grabatu diren urteetan, 2014an eta 2016an. Bestalde, eskualdean gertatu den moduan, bisitarien kopurua jaitsi egin da 2017. urtean.

Estatukoak dira Zumaia etortzen diren bisitari gehienak. Nazioarteko bisitarien kopurua nabarmen igo da 2015. eta 2016. urteetan.

- **Etxebizitza eta ostatua**

Etxebizitza. Zumaian, etxebizitzaren %84,64 okupatuta daude eta %15,36a hutsik. Artadi eta Narrondo auzoek eta eraikin sakabanatuak dituzte etxebizitza hutsen proportzio handienak.

ETXEBIZITZA							
						Guztira (etxebizitzak)	4.471
	Gunea	Herrigunea	Artadi	Oikia	Narrondo	Sakabanatua	
	Etxebizitza okupatuak	3.646	18	82	17	16	3.779
	Talde-etxebizitza okupatua	5	0	0	0	0	5
	Etxebizitza hutsak	621	16	21	12	17	687
		4.272	34	103	29	33	

Taulara 5. Zumaia etxebizitza kopurua eta egoera ¹⁵(2016/12/31, GFA).

OSTATUA ¹⁶ ZUMAIAN							
						Guztira (oheak)	707
	Kanpina				Oheak		488
1	Camping & Bungalows Zumaia	1. kategoriako Kanpina			488		
	Ostatuak		Logelak		Oheak		219
2	Talasoterapia Zelai hotela	Hotela	26		50		
3	Zumaia	Hotela	16		26		
4	Flysch hotela	Hotela	18		45		
5	Santa Klara	Nekazaritza-turismoa	10		16		
6	Karakas	Nekazaritza-turismoa	6		12		
7	Jesuskoa	Landetxea	7		12		
8	Landarte	Landetxea	7		12		
9	Goiko pentsioa	Pentsioa	4		7		
11	San Jose komentua	Erromes-ostatua			39		
					Guztira (apartamentuak)		28
	Apartamentuak				Oheak	Apartamentuak	
12	Camping & Bungalows Zumaia	Bungalow			29	12	
13	Santa Klara	Apartamentua			8	1	
14	Jesuskoa apartamentuak	Apartamentuak			18	5	
15	Tomas apartamentuak	Apartamentuak			18	3	
16	Basque Stay	Apartamentuak	17		37	7	
					Guztira (pisu turistikoak)		25
	Pisu turistikoak					Pisu turistikoak	
	Pisu turistiko erregulatutakoak	Apartamentuak				25	
	Pisu turistiko ez-erregulatutakoak	Apartamentuak				ez dago daturik	

Taulara 6. Zumaia ostatuak.

¹⁵ <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/AYTO/UPMPadronMunicipalWEB/busqueda.do>


¹⁶ <https://turismo.euskadi.eus/aa30-15633x/es/s12PortalWar/buscadoresJSP/buscadorA1.jsp?r01kLang=es&municipalityCode=200081&municipality=ZUMAIA>

Ostatua. Hiru multzotan sailkatzen ditugu ostatuak: establezimendu bezala erregistratutako negozioak, apartamentuak izan ezik; apartamentuak diren establezimenduak; eta pisu turistiko erregistratuak.

Zumaian, ostatu plaza bat dago 13,4 biztanleko, eta 5,3 apartamentu erregistratu/ofizial mila biztanleko.

Ez dugu erregistratu gabeko pisu turistikoen neurketaren daturik izan eskura. Egoera errealera hurbiltzeko, interesgarri da, erreferentzia moduan, Montera34 taldeak Euskal AEko Airbnb pisu turistikoen gainean egin duen mapari begiratzea. Bertan, Zumaian 31 iragarki daudela adierazten da.

Anuncios de Airbnb por municipio en Euskadi



Datos: insideairbnb | Más info en lab.montera34.com/airbnb

Irudia 16. Airbnb iragarkiak euskal udalerrietan (2017).

- **Ostalaritza**

Zumaian 66 ostatu eta jatetxe daude, kategoria askotakoak. Establezimendu horien kopurua egonkor mantendu da azken hamarkadan. Taulak ematen digu bilakara horren berri.

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
6,34	6,42	6,60	6,06	6,75	6,64	6,46	6,38	5,78	6,04	5,79	5,63	5,60	5,65	6,16

Taula 7. Ostalaritza establezimenduen eta jatetxeen eboluzioa 2003-2017 (mila biztanleko). Jatorria: Udalmap

- **Beste zerbitzu turistiko batzuk**

Zerbitzu turistikoen eskaintza zabala egiten du Zumaiak, eta turismo aktiboa sustatzen du jarduera hauen bidez: itsas bisita gidatuak (Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkeak antolatutako 12 jardueretatik 8 egiten dira Zumaian); 13 ibilbide (5 Nordic Walking, 1 herrigunean eta 7 inguruetan); Donejakue Bidea; 5 Museo; Itsaslabarrak eta 3 hondartzak; 3 Itsasontzi-irteerak; 4 Surf- Sup Bodyboard; 2 Kayak; mendiko ibilbide bat; 3 abentura anitzak; talasoterapia bat; eta, kirol-portua.

- **Elkarbizitza. Kohesio soziala/bizi kalitatea¹⁷**

Demografia. Zumaiak 9.979 biztanle ditu, %17,77 haurrak dira (0-14 urte), %17,80 adinekoak (65 urte eta gehiagokoak) eta %7,91 adin handikoak (75 urte eta gehiagokoak). Biztanleria, azken hamarkadan, %11,17 hazi da, eta %1,41 azken urtean.

Biztanleriaren mugimendu naturala eta migrazioak. Zumaian, jaiotze tasa gordina 12,66koa da mila biztanleko da, eta urtean metatutako kanpoko immigrazioaren eta emigrazioaren arteko aldearen partaidetza 4,67koa da batez beste, mila biztanleko. Udalerrian erroldatuta dagoen biztanleria immigrante osoarekin alderatuta, Europar Batasunetik kanpoko biztanleria atzeritarrak %5,28koa da.

Etxebizitza eta hiritartzea. Udalerriak %53,72ko etxebizitza dentsitatea du, %15,71 hutsik dauden familia-etxebizitzak dira, eta 50 urtetik gorako antzinatasuna duten familia-etxebizitzak %17,51. Etxebizitzen erosotasun-indizea %75,40koa da eta aurri-egoeran, egoera txarrean edo egoera eskasean daude %7,39. Etxebiden 29,57 etxebizitza-eskabide egiten dira, mila biztanle bakoitzeko.

Udal hiri-lurzorua %11,79koa da, eta bizitegietarako lurzoru urbanizagarria %25ekoa da. Adierazgarria da, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren batez bestekoarekin alderatuz, biztanle-dentsitatea hirukoizten dela Zumaian, 934,36 biztanle/km² bakoitzeko.

Garraioa eta mugikortasuna. Herritik kanpo lan egiten du 16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatuaren %57,40k, eta herritik kanpo ikasten du 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %76,08k. Batez beste, 0,53 ibilgailu daude biztanleko, eta EAEko

¹⁷ Eusko Jaurlaritza – Ogasun eta Ekonomia Saila. Udalmap. Zumaiako Udalerriaren txostena, 2018ko martxoaren 10ean

udalerrietara joateko batez besteko denbora 38,24 minutukoa da. Zumaiaren irisgarritasuna 67,96koa da (Zumaiatik EAeko gainerako herrietara, batez besteko lerro zuzeneko distantzia eta batez besteko denbora aintzat hartuta).

Herriarren segurtasuna. Zumaian, delitu-indizea 22,40koa da eta 1,1 udaltzain dago mila biztanle bakoitzeko.

Erabilera orokorreko ekipamenduak. 0-2 urte arteko haur hezkuntza 4,05 unitatez hornitzen da Zumaian, eta 8,21 banku bulego eta 3,04 farmazia ditu 10.000 biztanleko. Donostia Ospitalera iristeko batezbesteko denbora 21,95 minutukoa da, eta 3. adinekoentzako eguneko eta egoitza zentroetako plaza kopurua, mila biztanleko, 134,24koa izan da 2011n.

Udal hauteskundeetako parte hartzea. Hautesle eroldaren %66,41ek hartu du parte udalerriko azken hauteskunderan.

- **Garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna¹⁸**

Egitura ekonomikoa. Zumaian, industria sektoreak duen pisua aipagarria da (%49,40ko balio erantsi gordina (BEG), 2012an). Zerbitzu sektorean lan egiten du 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren %60,16k. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriekin alderatuta, zerbitzuen sektorea, nekazaritza eta arrantza sektorearekin gertatzen den antzera, batez bestekoaren azpitik dago.

Lan-merkatua. Zumaiak %48,63ko biztanleria aktiboa izan du 2016an, eta lanean aritu dira 16 urte eta gehiagoko biztanleen %51,44. Lanbiden erregistratutako langabeak %6,99 dira, eta %3,20 INEMen erregistratutako luzaroko langabeak. Urtean erregistratutako kontratu-kopuruaren eta urte berean kontratua sinatu duten pertsona-kopuruaren arteko erlazioa 3,5 kontratu/pertsonakoa izan da.

Enpresa egituraketa. Enpresa txikiek (0 eta 9 langile arteko establezimenduek) sortu dute Zumaiaiko establezimendu guztiek sortutako lanpostuen %31,49, eta zerbitzu sektorean jarduten du establezimenduen %75,18.

Ekonomia dinamismoa. Zumaiak, 2012an, 35.743,00 €-ko Barne Produktu Gordina (BPG) zuen, eta eskualdeko, probintziako eta erkidegoko datuekin alderatuta, handiagoa zuen urteko hazkunde-tasa metatua, eta txikiagoa establezimenduek sortutako lanpostu-kopurua. 2017. urtean, 396,26 kontratu erregistratu ziren Zumaian 1.000 biztanleko.

Biztanleriaren ekonomia baliabideak. Zumaiaiko 18 urtetik gorako biztanleen batez besteko errenta pertsonala 17.954,00 €-koa da, eta errenta pertsonal osoaren urteko hazkunde-tasa metatua %4,27koa da.

¹⁸ Eusko Jaurlaritza – Ogasun eta Ekonomia Saila. Udalmap. Zumaiaiko Udalerriaren txostena, 2018ko martxoaren 10ean

Udaleko ekonomia-finantza kudeaketa. Udalaren gastuaren aurrekontu likidazioa biztanle bakoitzeko¹⁹ 1.019,90 €-koa da, eta biztanleko zor bizia²⁰ 284,00 €-koa, apala eskualde eta erkidegoarekin alderatuta. Biztanle bakoitzeko, 349,99 € bildu ditu zuzeneko eta zeharkako zergak kobratuz, eta 55,43 €-ko inbertsio garbia egin du.

- **Generoa**

Zumaiaiko lan merkatuan, EAEko batez bestekoa baino handiagoa da generoen arteko aldea; izan ere, gizonen eta emakumeen okupazio-tasen arteko aldea 12,94koa da. Emakumezkoen okupazio-tasa %45,43koa da.

- **Kultura, Euskara eta nortasuna**

Museoak. Algorri Naturaren Interpretazio Zentroak, Ignacio Zuloaga Kultur Guneak, Julio Beobide eskultorearen Museoak, Marinelen San Telmo Kofradiak eta San Pedro parrokiak osatzen dute Zumaiaiko museo eskaintza.

Jaiak. Jai ugari eta bakoitza bere ezaugarri bereziarekin ospatzen dira Zumaian: santelmoak, sanpedroak, San Bartolome (Oikian), Udako Festak, San Migel eguna (Artadin), Alai auzoko jaiak, Narrondoko sankristobalak eta Arritokieta eguna.

Euskara. Herri euskalduna da Zumaia eta kalean asko hitz egiten da euskaraz. Turismoaren arloan, euskara ikusarazteko jarduerak egiten dira, eta hasiera-hasieratik egin da euskarazko bisitak antolatu eta bultzatzeko ahalegina.

Euskararen ezagutzari²¹ begiratuta, zumairren %73,8k daki euskaraz (2016ko datua). Taula honek erakusten du azken hamarkadan izandako bilakaera:

Euskararen ezagutza	2006 (%)	2011 (%)	2016 (%)
EUSKALDUNAK	71,7	71,6	73,8
IA EUSKALDUNAK	15,8	15,8	10,6
ERDALDUNAK	12,5	12,6	15,6

Taula 8. Euskararen ezagutza Zumaian, 10 urteko bilakaera. Jatorria: EUSTAT.

¹⁹ Zumaia likidatutako gastu korrantea (biztanleko eurotan), 2015. Urtean. Jatorria: Behagi, Gipuzkoako behatoki soziala (Gipuzkoako Foru Aldundia)

²⁰ Zumaiaen zor bizia (biztanleko eurotan), 2015. Urtean. Jatorria: Behagi, Gipuzkoako behatoki soziala (Gipuzkoako Foru Aldundia)

²¹ Euskararen ezagutza Zumaian, 10 urteko bilakaera. Jatorria: EUSTAT

Euskararen kale-erabilera ²² aztertuta, %57,8koa izan da 2016. urtean, %40,8koa gaztelaniarena, eta %1,3koa beste hizkuntza batzuenarena.

Euskararen kale-erabilera	2006 (%)	2011 (%)	2016 (%)
OROKORRA	58,0	52,8	57,8
HAURRAK (2-14)	80,2	71,2	75,1
GAZTEAK (15-24)	64,9	70,9	79,7
HELDUAK (25-64)	46,0	42,2	49,1
ADINEKOAK (65-)	52,8	45,3	39,5

Taula 9. Euskararen kale erabilera Zumaian, adinaren arabera. Jatorria: Soziolinguistika Klusterra.

Sexuaren arabera, honako banaketa hau izan da 2016an:

Hizkuntzen kale-erabilera Zumaian (2016)	Emakumezkoak (%)	Gizkonezkoak (%)
EUSKARAZ	59,6	55,8
GAZTELANIAZ	39,2	42,7
BESTE HIZKUNTZETAN	1,2	1,5

Taula 10. Euskararen kale erabilera Zumaian, adinaren arabera. Jatorria: Soziolinguistika Klusterra.

“Euskararen kale erabilerak bost puntu egin du gora Zumaian azken bost urteotan, Soziolinguistika Klusterrak egin duen kale neurketaren arabera. Duela bost urte ikusitako joerari eutsiz, 14 eta 25 urte arteko gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%79,7), eta goranzko joera nabarmenarekin aurreko inkestekin alderatuta (2006an %64,9)”. G. Zabaleta, Urola Kostako Hitzza, 2017/03/10

Zumaia, 2009az geroztik, UEMA edo Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da.

- **Ingurumena eta klima aldaketa²³**

Hondakinak. Zumaia lurzoru azaleraren %2,40 kontaminatuta dago; 2009. urtean, 415,63 kg hondakin sortu ziren etxeetan biztanle eta urteko; eta 2004. urtean, 359,42 kg hondakin arriskutsu kudeatu ziren biztanle eta urteko.

Berdegunek eta eremu babestuak. Zumaia lurzoru azalaren %33,08k babes bereziko erregimena du, eta azalera osoa kontuan izanik, parkeek, lorategiek eta berdeguneez hartzen dute azalaren %7,09.

Ura eta airea. Ur eskari osoa 154,00 litrokoa da biztanle eta eguneko. Zumaian, hiri erabilerako lurzoruaren %17,69 dago uholdeak erasateko arriskuan, eta egun guztietan izan da airearen kalitate ona edo onargarria.

²² Soziolinguistika klusterra, Zumaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016:

<https://zumaia.eus/eu/udala/sailak/euskara/zumaiaiko-datu-soziolinguistikoak/ZUMAIKALENEURKETA2016.pdf>

²³ Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saila. Udalmap. Zumaia Udalerriaren txostena, 2018ko martxoaren 10ean

Energia. Zumaian urteko kontsumo elektrikoa biztanleko 8.359,07 kwh-koa izan da 2016an, eta eguzki-instalazio termikoen azalera 63,48 m²-koa da 10.000 biztanleko.

- **Mugarri zinematografikoak eta horien ondorioak**


Bi grabaketa zinematografikoren ondorioz, bisitari asko ikusten ditugu argazkiak ateratzen Zumaia leku jakin batzuetan: Sanjuaniturrin, San Telmo ermitan eta Itzurun hondartzan.

8 Apellidos Vascos. 2014an estreinatu ondoren, Zumaira etortzen zaizkigun bisitariak argazkiak atera nahi izaten dituzte filmak ezagun egindako lekuetan.



Irdia 17. Sanjuanituri, Zumaia Alde Zaharrean, grabazio lekua.

Game of Thrones. Grabaketa Itzurunen egin zen, 2016ko udazkenean, eta 400 langile inguru behar izan ziren. Zumaia arraunlariek grabaketan parte hartu zuten. Zumaia Turismo Bulegoak ez du promoziorik egiten bisitariak erakartzeko, baina informazioa ematen die iristen direnei.



Irdia 18. Game of Thrones, Itzurunen.

- **Markak**

Basquetourren marka:

Euskadi

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
marka:

Explore San Sebastian Region



Urola kostako
mankomunitatearean marka:

Kostaldea



Euskal Kostaldeko Unescoren
Geoparke mundialaren marka:

Euskal Kostaldeko Geoparkea



Euskal Kostaldea - Costa Vasca



Urolaren marka:

Urola



Zumaia turismoaren marka:

Zumaia



Irudia 19. Marka turistikoak.

vii. Turismo segmentuak

Zumaian oinarrizko turismo segmentu hauek garatzen dira:

- **Landa-turismoa:** ostatuak, ibilbideak, bisitak gidatuak eta esperientziak.
- **Hondartza eta eguzki turismoa:** aisiarako, atsedenerako, dibertsiorako eta jolaserako turismoa da.
- **Kultura turismoa:** euskara eta ondare historikoa eta industrialak ezagutzeko turismoa da.
- **Osasun turismoa:** Iraganean bezala, itsas bainuak hartzeko eta paseoak egiteko turismoa da. Talasoterapiaren baliabidea nabarmendu behar da.
- **Negoio turismoa:** Industriak indarra du Zumaian, eta turismo mota hau garatzeko aukera dugu.

Zumaian lantzen diren turismo segmentu zehatzak:

- **Gastronomia turismoa:** Erakundeek Kosta Gastronomika, Euskadi Gastronomika eta Urola Gustagarri programak bultzatzen dituzte.
- **Kirol turismoa:** surfak, pilotak, krosa mendi lasterketak, itsasoko eta ibaietako lehiaketek arrakasta dute, ingurunearen balio handiarengatik.
- **Oporraldiako turismoa:** aisialdiarekin loturiko turismo mota da. Familia eta banakako ugari etortzen da Zumaiaara.
- **Zientzia turismoa:** balio geologiko handiak erakarrita, zientzailariak eta akademikoak izaten ditugu bisitari.
- **Erlijio turismoa:** Donejakue Bidea igarotzen da Zumaiaitik, eta Urola eskualdearekiko lotura egin daiteke Inaziotar Ibilbidearekin.

Zumaian gara daitekeen turismo segmentu zehatza:

- **Hizkuntza turismoa:** Ikasteko bidaiak turismo modalitate bat dira, pertsona batzuek oporrak aprobetxatzen baitituzte beren hizkuntza gaitasuna hobetzeko. Ikuspuntu ekonomikotik, turismo mota horrek gastuak egiten ditu herrian eta ondasuna produzitzen du. Ikasleek aste batzuetako egonaldiak egin ditzakete. Ikuspuntu kulturaletik, euskararen transmisioa garatzen du turismo mota horrek.

viii. Gizarte zibileko mugimenduak turismoaren aurrean

Mugimendu batzuek zalantzan jarri dute erakundeen aldetik bultzatzen den turismo eredua, eta turismoaren gaineko eztabaida plazaratzeko asmoa ageri dute. Mugimendu horien artean, aipagarriak dira Donostian turismoak sortzen dituen eragin negatiboak salatzen dituztenak.



Irdia 20. Zumaiako kale batean, "Turismo masiboari EZ! Refugees Welcome" pintada.

e. AMIA (DAFO). Ondorioak.

Mehatxuak.

- Hainbat mailatan hartzen dira turismoaren industriaren erabakiak eta erabakiek faktore askori erantzuten diete. Helmuga turistikoa hartu gabeko erabakiek inpaktu sortzen dute tokian-tokian, eta inpaktu horren kudeaketa zuzena egin behar da, iraunkortasuna mantentzearen alde. Aipagarria, adibidez, Zumaian filmatu diren produkzio zinematografikoek leku jakin batzuei eman dieten erakargarritasuna, bisitari mota horren bila aritu ez garen arren.
- Balio handiko natura-baliabide ugari dago itsaslabarrean eta bisitarien ugaltzearekin hondatzen hasiak dira, aztarna batzuek erakusten dutenez. Epe laburrean natura-ingurunea ondo zaindu eta mantentzen baldin bada, gerora ez da berreskuratzeko lanik egin behar eta epe luzearako iraunkortasuna sendotuko da.
- Plataforma digitalen bidez, herritar arruntek eta negozio azkarra ikusi duten enpresek erraz aloka diezazkiekete etxebizitzak turistei. Gai honetan, erregulazio faltak ondorio larriak dakartza hainbat kasutan, batez ere hiriburu eta helmuga turistikoa "helduetan": elkarbizitza arazoak sor daitezke bertakoen eta bisitarien artean; ostatu eskaintza apal daiteke; alokairu prezioak igotzen dira; ohiko alokairuak murrizten edo desagertzen dira; eta auzoen izaera narriatu edo eralda daiteke, besteak beste. Zumaian, etxebizitza hutsen kopurua txikia da, eta ostatu eskaintza handitu egin da azken urteetan, baina halere lehen aipatutako ondorioetako batzuk azaltzen hasiak dira, eta pisu turistikoa modu jasangarrian kudeatzeko baliabideak jarri behar dira.
- Helmugara iritsi aurretik, ondo informatutako bisitariak badu bisitatuko duen lekuaren berri eta badaki arriskua non egon daitekeen. Hala ere, Zumaian, bisitari askok ez du aintzat hartzen Algorriko muturraren, marearteko itsaslabarraren eta Itzurun hondartzaren arriskuak, leku enblematiko batzuk aipatzearen. Istripuak izaten dira, pertsona batzuk larri ibiltzen dira eta bisitari batzuek ausartegi jokatzen dute; beraz, segurtasun egoera aztertzea komeni da.
- Har ditzakeenak baino bisitari gehiago hartzen baldin baditu Zumaia, ondorio kaltegarriak gerta daitezke natura eremuan eta elkarbizitzarako espazio publikoan. Horrenbestez, zenbat bisitari har daitezkeen aztertu behar da eta neurri prebentiboak adostu behar dira, natura eremua eta espazio publikoa babesteko.

- Zumaiaiko egitura ekonomikoan, industriak indar handia du eta balio erantsia sortzen du, baina turismoaren gehiegizko hazkundeak ahuldu egin dezake indar hori.
- Turismo helmuga helduetan zer gertatzen den ikusita, sektorearen hazkunde gorakorrek herrian kualifikazio eskaseko eta kalitate gutxiko enplegu ugari sortzeko arriskua dakar.
- Turismoaren kudeaketa zuzenik egin ezean, Urola itsasadarreko natura kaltetuta suerta daiteke. Alderdi hauek zaindu behar dira: Santixoko paduran etengabe txakurrak ibiltzea; padura hondartza gisa erabiltzea; Padel Surfean aritzen diren bisitariak Beduako irletara hurbiltzea eta horietan izaten diren hegaztiak izutzea; ontzi motordunek ibaian egindako olatuek ibai ertzetako landareadia kaltetzea.
- Zumaiarren ahalduntze eta parte-hartzerik eza turismo kontuetan.

Indarguneak.

- Natura-baliabide izugarriak ditu Zumaia.
- Eskualdeko erakundeen parte-hartzea ziurtatu behar da zenbait erabaki hartu behar direnean, eta batzuetan zaila izaten da koordinazio-lanak egitea, baina herritarrak gogoz daude turismoaren alorrean lankidetzan aritzeko, Zumaia kohesio sozial handia du, eta elkarte asko prest daude elkarlanean aritzeko.
- Industriak indar handia du Zumaian, baina zerbitzuen sektorean lan egiten du lau biztanletik hiruk. Turismoa modu jasangarrian bultzatu behar da, lan baldintza duinak bermatzeko.
- Herri euskalduna da Zumaia, eta herritar askok dakite euskaraz. Horrek balio erantsia ematen dio, helmuga turistikoa den aldetik.
- Azken urteetan sortu diren baldintzak bultzatuta, segmentu turistikoa asko garatu dira herrian. Horren ondorioz, eskaintza turistikoa oparoa egiten du Zumaia.
- Zumaia nazioarteko proiektioa du, Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen eskutik. Sendotu egin da hiru herriren eta zenbait erakunderen arteko lankidetzatik ateratako proiektua. Gainera, lankidetzan sektore pribatuarekin, hazten eta indartzen ari dira produktu turistikoa (ibilaldiak).

- Kirolzaletasuna da herriaren bereizgarri bat, ekintzaile da surfean eta bizitza kultural aberatsa du. Erromes bidea herriaren erdigunetik igarotzen da, eta lantzeko du (itsas) ondare industrialia.
- Olagarroa produktu tradizionala da, Zumaiaiko irudia eta eskualdeko enbaxadore gastronomikoa da.
- Estereotipo kulturalak desagerrarazten lagundu dezake turismoak. Hori lortzeko bideak dira, esaterako, komunikazio kanpaina egokiak egitea eta hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea.

Ahuleziak.

- Lehen sektoreko jarduerak gainbehera egin dute Zumaian; batik bat, arrantzak eta nekazaritzak. Bertako produktuak ekoitzen dira, baina neurri apalean.
- Iraganean izandako jarduera turistikoa berreskuratze bidean dela dirudi, baina sektoreak laguntza behar du, osotasunean, profesionaltasun maila altua hartzeko.
- Herriaren antolamenduari begiratuta, lurpeko aparkalekuen falta sumatzen da, eta egoera horrek zailtasunak dakartza autoan mugitzeko eta alde zaharreko ingurunea edertzeko eta hobetzeko.
- Erakundeen arteko adostasun faltaren ondorioz, garatu gabe daude Biotopo Babestuaren izendapenak eskaintzen dituen babesak eta aukerak, eta horrek egoera kalteberan jartzen du naturagunea.
- Turismoaren alorrean, datuen bilketa nahasia izan ohi da. Turismoa, ohituraz, zerbitzuak atalaren barnean azaldu ohi da eta datu ekonomiko batzuk ez dira eguneratu 2012tik. Ondorioz, zaila izaten da datuetan oinarritutako erabakiak hartzea.
- Jarduera turistikoa osotasunean eragiteko giza baliabideak falta dira, bisitarien harrera kalitatez egiteko eta dinamizazio lanak burutzeko.

- Herritarrek ez dituzte ezagutzen Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen aukerak eta erabilpenak. Oro har, egituraketa ezaguna da, baina ez dute barneratuta, ez da “beraiena”²⁴.
- Zumaiaiko Turismo Bulegoaren kokapena ahulezia moduan ikusten da. Elkarrengatik urrun ikusten dira Algorri Interpretazio Zentroa eta bulegoa.
- Emakumeek lanpostu prekarioak izan ohi dituzte turismoaren sektorean, maila eta soldata apalekoak. Estereotipoen eta genero diskriminazioaren adierazle, emakume askok sukaldean, garbiketan eta ostatugintzan egiten dute lan, eta horrek berretsi egiten ditu genero rolak.
- Familiako negozioetan, maiz, emakumeek egiten dituzte ordaindu gabeko lanak, eta egoera batzuk “esplotaziotik” gertu izan daitezke. Horrenbestez, funtsezkoa da sektorean berdintasuna sustatzea.

Aukerak.

- Zumaiaiko biztanleak, Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanlearekin alderatuta, gastua apala dakarkio Udalari. Egoera hori baliatuta, inbertsioak egin daitezke arduera turistiko jasangarriak bultzatzeko eta herritarren elkarbizitza bermatzeko.
- Industria jardueraren osagai, turismoak sortzen dituen lanpostuak Zumaiaiko langabezia murriztea langundu dezake.
- Euskararen ezagutza handia eta geologia-baliabide apartak indargune dira, eta hizkuntzaren eta zientziaren segmentu turistikoak garatzeko aukera ematen dute.
- Herrian turismoaren hazkunde jasangarria eginez gero, lanpostuen kalitatea hobetu daiteke eta natura babesteko aukera izango da.
- ZIIZ elkarte eta Beduola elkarte zer lan egiten ari diren ikusita, ondare industrialari eta itsas ondareari bultzada emateko aukera dago.
- Atzerritarren ehunekoak gora egin du azken urtean, urteko datu orokorrak negatiboak izan diren arren.

²⁴ Elkarriketatik ateratako ondorioa, Geoparkeari buruz galdetzen zitzairen eta erantzun ugari ildo horretatik zihoazen.

- Z Kulturgunea alor garaikidea lantzen du eta berri-ekin egin dituen egiturak eta egitaraua. Museoaren eta turismo bulegoaren arteko harremanak landu daitezke.
- Natura babesteko proiektu bat osatu eta bisita programatuak antola daitezke baserriaren bizimodua ezagutzeko. Lehen sektoreari bultzada emateko aukera dago.
- Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziarekin bateragarri diren ekintzak abia daitezke: turismoaren esparrutik natura eta paisaia erregulatzeko nekazaritza jarduerak susta daitezke, inpaktu positiboak sortze aldera; kultura eta ondarea babesteko ekimenak abiatzea eta Beduako ontziolari bultzada; eta naturaren ezagutza hezitzailea zabaltzea, herritarren eta bisitarien artean.
- Eremu formalean eta informalean diru-sarrerak lortzeko aukera ematen die turismoak emakumeei. Turismoaren sektoreko lanpostuak malmugak izan ohi dira eta esparru komunitarioaren zein bizitokietan betetzekoak izan daitezke. Gainerako sektoreekin alderatuta, turismoak aukera handiak ematen ditu turismo industrian enpresariak izateko.
- Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen ahalduntzea lortzeko erabil daitezke turismoa, familian eta komunitatean. Genero berdintasunaren alde egiten baldin bada, turismo esperientziaren kalitatea hobetu egingo da eta, era berean, sektoreko zerbitzu guztien errentagarritasuna eta kalitatea.

A topographic map showing contour lines and building footprints. A white rectangular frame is overlaid on the map, containing the page number and the section title. The map shows a valley with a winding path or road and several clusters of buildings.

4

II. FASEA. INTERBENTZIOA

4. II. FASEA. INTERBENTZIOA: ZumaiaLab, herria plataforma parte-hartzaile gisa

Lanaren metodologiari jarraitzeko, interbentzio fasean analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egin eta herritarren pertzepzio eta iritziak jasodira galdetegiaren eta elkarizketen bidez. Analisaren emaitzekin, esperimentazio laborategian, bi saiotan banatu da prozesu parte-hartzailea. Eronkak eta bektoreak landu ditu lehen saioak, eta bost lan-eremutan ekintzak proposatu ditu bigarrenak.



Irudia 21. #zumaialab turismogintzarako laborategia, interbentzio fasea.

a. Herritarren pertzepzioak eta iritziak:

i. Galdetegia: datu kuantitatiboak

Galdetegia²⁵ 6 aste eta erdiz izan da eskuragarri Zumaiaiko herritar guztientzat, ekainean eta uztailean. Herrian lan egiten dutenek eta Zumaiairekin lotura handia dutenek ere izan dute galdetegia erantzuteko aukera. Galdetegiak, 59 galderen bidez, informazio hau lortu nahi izan di: erantzuten zuenaren profila, turismoari buruz zuen pertzepzioa (dituen eragin positibo zein negatiboak ezagutzeko), zumaiaarren bidaiatzeko ohiturak, bertakoek turismoaz eta bisitariez egiten duten balorazioa, turismo-sektoreari buruzko iritzia, erantzuten zuenaren ahalduntze psikologiko, sozial eta politikoa; eta, azkenik, turismoaren gaian, parte-hartzea estrategia gisa erabiltzeari buruzko iritzia.



Irdia 22. Zumaiaiko turismoaren egoera aztertzeko galdetegia.

Galdetegiaren emaitzen laburpena, atalez atal:

1. **Galdetegia erantzun dutenen profila.** Turismoaren sektoreko kideen parte-hartze txikia izan da. Herritarren parte-hartze orokorra, ordea, handia izan da aztertutako laginean. Genero osiera parekatua izan da, da eta euskararen erabileraren datuak bat datoz datu errealekin. Oro har, unibertsitate mailako ikasketak eta 35-54 urte arteko pertsonak osatzen dute parte hartu dutenen profila.

²⁵ Galdetegia eta erantzunak eranskinean ikus daitezke eta eskuragarri daude esteka honen bidez: http://zumaia.eus/files/copy_of_Lab1Galdetegia201720170912Euskara.pdf


2. Turismoa ulertzeko modua Zumaian. Zumaiarrak kezkatuta daude turismoak plangintza fisikoan, tokiko ekonomian eta bizi-kalitatean dituen eraginekin. Kopuru txiki batek uste du turismoak kalte egiten diola euskararen erabilerari eta identitatearen galera dakarrela. Turismoak espazio publikoaren saturazioa ote dakarren eta ingurumena hondatzen ote duen galdetuta, pertsonen erdiak baietz erantzun du, eta ezetz beste erdiak.

3. Erantzun dutenen bidaiatzeko ohiturak. Zumaiarrek, bidaiatzen dutenean, autoa erabiltzen dute batik bat. Atzetik datoz autobusa eta hegaldi merkeak. Ez dute autoa partekatzeko ohiturarik eta bizikletaren erabilera txikia da.

Helmuga turistikoa aukeratzeko, internet erabiltzen dute, aurrez ezagutzen dituzte lekuetara joaten dira edo lagunek/familiakideek gomendatutako helmugak hautatzen dituzte. Bidaiatzeko arrazioen artean, aisia eta atsedena dira nagusi. Modu arduratsuan egindakoa da, haien ustez, turismo jasagarria.

4. Egoiliarrek/bertakoek nola baloratzen duten turismoa Zumaian. Balio naturalei buruzko kezka azaldu dute. Gehien baloratzen direnak: UNESCOren nazioarteko sareko kide izatea, biotopo babestuen tresna edukitzea eta Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen kudeaketak dakarren elkarlana. Kalitateko turismo baten aldekoak dira eta ez dituzte gaitziritzen autoak zein logelak edo etxeak alokatzeko plataforma digitalak.

5. Zumaiaira iristen diren bisitari/turisten balorazioa bertakoen aldetik. Bisitariak onura gisa hartzen dira Zumaian (% 61) eta, etorkizunera begira, bisitari gehiago hartzearen aldekoa da (% 50), nahiz eta oso esanguratsua den %39a bisitari gehiago hartzearen aurka azaltzea. Bisitariak eragiten dituzten eragozpenen artean honako hauek aipatzen dira: saturazioa, aparkalekuen gabezia eta ingurumenarekiko errespetu falta.



Irudia 23. Galdetegiak 30. eta 33. galderei eman zaien erantzuna.

Zumaia bisitatzen dutenek interesa dute naturan eta gastronomian. Horien atzetik datoz ostatuak eta alokairuak. Zumaiarrek nahiago dituzte gaua bertan pasako duten turistak, ongi informaturik daudenak eta natura zein nekazaritzarekiko interesa dutenak. Adinekoen turismoak eta talde handitakoak dituzte balorazio eskasena.

6. Turismoaren sektorearen balorazioa zumaiarren aldetik. Eskaintza gastronomikoaren hobekuntza eta formazioaren beharra dira aipatutako gai nagusiak. Genero berdintasuna bermatu nahi da sektorean, eta euskara ondare gisa erakustearen aldekoak dira.

7. Ahalduntze psikologikoa, soziala eta politikoa. Ahalduntze psikologikoa positiboki baloratzen da. Zumaiarra harro sentitzen da bere herriaz. Hala ere, gabeziak ikusten dira ahalduntze sozial eta politikoa.

8. Zumaiaiko turismo politikan eta plangintzan parte-hartzea baliatzeko estrategia. Plangintza eta politika turistikoetan parte hartzeko interesa adierazi du % 58k, baina ez daki nola parte har dezakeen beraietan.

ii. Elkarrizketa sakonak: datu kualitatiboak

108 **elkarrizketatan** oinarritu da analisi kualitatiboa. Elkarrizketak egiteko, herriko eta herritik kanpoko hainbat agente aukeratu dira: sektore publikokoak (30), sektore pribatukoak (30), antolaturiko gizarte zibilekoak (28), esparru akademikokoak (7) eta ekintzaileak (13).



Irudia 24. Elkarrizketatuak (sektore publikoa, sektore pribatua, gizarte zibila, akademia, ekintzaileak).

Sektore publikoko eragileak:

Oier KORTA Zumaiako Udala Alkatea EAJ-PNV	Alex OLIDEN Zumaiako Udala Zinegotzia Bozeramailea EH Bildu	Jon IRAOLA Zumaiako Udala Zinegotzia Turismo	Ione MUGUERZA Zumaiako Udala Zinegotzia Turismo	Arri txu MARAÑON Zumaiako Udala Zinegotzia PSE-PSOE	Esti IRURETA Zumaiako Udala Teknikaria Turismoa
Gorka ARREGI Zumaiako Udala Teknikaria Hirigintza	Xabier AZKUE Josune HERRARTE Zumaiako Udala Teknikaria Euskara	Miriam ROMATET Zumaiako Udala Teknikaria Kultura	Iban BARBA Zumaiako Udala Udaltzaingoa burua	Ricardo LANDA Zumaiako Udala Teknikaria Ingurumena	Maribi ARANGUREN Getaria Udala Teknikaria
Leire BARRIUSO Euskal Kostako Geoparkea Gerentea	Yurre PEÑAGARIKANO URKOME	Idoia ETXARRI Urola Kostako Udal Elkarte	Edurne ETXEBARRIA Urola Garaia Garapena Teknikaria	Cristina ITURRIAGAGOITIA Explore San Sebastian Region Zuzendaria	Esther FACCHIN Iraurgi Berritzen Teknikaria
Denis ITXASO Gipuzkoako Foru Aldundia Diputatu	Maite CRUZADO Gipuzkoako Foru Aldundia Turismo Zuzendaria	Iñigo MENDIOLA Gipuzkoako Foru Aldundia Teknikaria	Xabier ELIZEGI Gipuzkoako Foru Aldundia Teknikaria	Guillermo URBIETA Gipuzkoako Foru Aldundia Basozaina	Jexux MUJIKA Iraurgi Berritzen Teknikaria
Arantxa TAPIA Eusko Jaurlaritz	Edurne EGANA Euskadiko Kirol Portuak	Iñigo URIARTE BasqueTour Produktu Zuzendair	Naiara AYO BasqueTour Teknikaria	Bego GAINGOITI Bermeoko Udala Teknikaria Turismoa	

Sektore pribatuko eragileak:

Lore URANGA Basque Destination	Gonzalo TORRE Euskal Kostako Geoparkea	Ion ARRATIBEL Begi-bistan	Jon TXONPE Txonpe Náutica	Jon LLODES Xenda Nature Ruta Flysch	Jon ELZO Gura Market-IN
José Luis SAEZ Camping Zumaia	Ana EIZAGIRRE Maite Santa Klara Nekazal-etxea	Erramun OLIDEN Jesuskoa Nekazal-etxea	Lucia MANZISIDOR Flysch Hotela	Jose Manuel CEBERIO Zelai Talasoterapia Zumaia	Ricardo AZKUE Inmobiliaria
Krux UGARTEMENDIA Idoia Ardotegia	Gorka IRAZUSTA Jatetxea Txortena	Dani ARRATIBEL Hotel Zumaia	Jurdan GRIJALBA Itzurun KANTINA	Andoni TXINTXILLA Beheko Plaza Jatetxea	Itziar IBARGUREN Z Espacio Cultural Zuloaga
Aitziber Flysch Denda	Joxe Manuel AZKUE Xirula Argazkidenda	Marisa MARCOS Merkatari- elkarteako arduradun-ohia	Nerea IBAÑEZ ARAZI Algorri Interpretazio Z	Ramon SESE Zelai Talasoterapia Zumaia	Iñigo LAZKANO Basque Stay
Agustin AZPEITIA MAPFRE Seguros	Bosco GARITANO ETXETAR	Gorka ZABALETA Baleike	Imanol AZKUE Herriarra	Arrixu IRIBAR Kazetaria Zinegotzia	Begoña RIVERO ARAZI Algorri Interpretazio Z

Akademiako eragileak:

Asier HILARIO Euskal Kostako Geoparkea Zuzendari Zientifikoa	Belen URANGA Soziolingistika	Juan Jose ALVAREZ UPV-EHU	Nerea KAMIO Turismoa	Lorea MENDIOLA UPV-EHU	Peru FDZ DE ARROYABE Mondragon Unibertsitatea	Ismael MANTEROLA UPV-EHU Arte
---	------------------------------------	---------------------------------	----------------------------	------------------------------	--	--

Ekintzailek/aktibistak diren eragileak:

Telmo IRURETA Irisgarritasuna	Marije ANTIA Ekintzailea	Jon URBIETA RecRea	Beñat IBAETA Beduola Elkarte	Karmela PENALBA Surf Eskola	Samuel RUIZ Eskola Publikoa Darahil Elkarte	Javier SALVADOR Flysch Trail Politika
Jose Miguel AIZPURUA Baserritarra	Asier MANZISIDOR Baserritarra	Lucia LAKARRA Dantzaria	Irune ZULAIIKA Airbnb	Aitor KAREAGA Flysch Hotela	Jon MAIA Bertsolaria/ ALBAOLA-ohia	

Antolaturiko gizarte zibila:

Fernando IMAZ Asociación Peregrinos de los Caminos	Maria Eugenia ARRIZABALAGA Zinegotzi-ohia EAJ/PNV	Josu WALIÑO Herritarra	Aitor LEITZA Inaxio MANTEROLA Natur Tadlea	Javier CARBALLO Argazkilaria Jubilatua	Joseba ESNAL Memoria Historikoa
Iñigo ERKIAGA Gazteak	Isaak ARANBERRI Maria eta Jose Ikastetxea	Arrixe IRIBAR Kazetaria (Zinegotzia)	Felix ETXABE Zumaiaiko Arraun Taldea	Arrixe GONZALEZ Zinegotzi-ohia EH Bildu	Marixi SESMA Musika
Elene LAZKANO Pulpo Elkarte (gastronomikoa)	Iñaki ARANBARRI Inpernupe Elkarte	Iñaki ALDALUR Inda-Mendi Elkarte	Tamara Zumaia Merkatari elkarte	Xabier ALVAREZ Oihana ARTETXE ZIIZ elkarte	Asier LOPEZ kazetaria
Odej GARCIA Gorka URANGA Hondartza zaindariak	Telmo OSTOLAZA Torreberri Gaztetxea	Jorge MURGIENDO Distira Argazki Taldea	Ane AZKUE Mila BAKEDANO Astindu Dantza Taldea	Karmele Berdintasuna	BEOBIDE

Irudia 25. Zumaiaiko turismo eragileak. Turismoa.

Zuzenean bost sektore horietako kolektiboen iritzia jakiteko diseinatu zen elkarrizketen edukia. Zehazki, gai hauek planteatu ziren galderetan: turismoak Zumaian izandako garapena eta hazkundea, barne zein kanporako posizionamendua, turismo gaietan erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa, Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen kudeaketa, turismoaren bitartez kulturari zein euskarari balioa ematea, gizarteak nola begiratzen dion espazio natural eta urbanoaren erabilerari, masifikazio turistikoa eta haren eraginak, etxebizitza turistikoak eta alokairua, ekintzaitza turistikoa, turismoak zer garrantzi duen tokiko ekonomian, tokiko turismo sektorearen lehiakortasuna, erabakiak hartzeko parte-hartzeak duen garrantzia, teknologia berrien aplikazioaren garrantziaren ingurukoa, datuen bilketa eta trataera, eta Zumaian epe ertainean izan behar den turismo ikuspegia.

Galdetegiko erantzunen eta elkarrizketen bidez lortutako emaitzak aztertu ondoren, azaldutako kontzeptu eta gaiak 10 sektore estrategiko edo ardatz nagusitan laburbildu ziren. Horiek izan ziren irailean egindako lehenengo laborategian aztertu eta garatzeko gaien oinarria. Guztiak izan ziren baliagarri Zumaian aplikatu beharreko eredu turistikoa zehazten eta estrategiak erabakitzen hasteko.

10 sektoreen edo ardatz estrategikoen arabera jasotako laburpena:

Elkarbizitza. Kezka iturri dira, oro har, kontrolik gabeko turismoak herrian eragin ditzakeen aldaketak. Hala, "letorkeenari aurre hartu behar zaiola" esan da. Elkarrizketatu askok kezka adierazi du herrian ohiko etxebizitzak alokatzeko dauden zailtasunengatik eta prezio garestiengatik.

Izaten ari diren gorakadaren ondorioz, etxebizitza turistikoak arautzeko premia izango da epe ertainean.

Espazio publikoaren okupazioari (edo masifikazioari) dagokionez, esan da Zumaia zenbat turista har ditzakeen jakin behar dela. Bereziki, gainera, Itzurun-Algorri inguruan. Behin hori jakinda, naturagunearen erabilerrari zer mugak jarri behar zaizkion erabaki daiteke.

Hainbatek aipatu ditu turismoa demokratizatzearen eta turismo arduratsu baterako eskubidearen ideiak.

Tokiko sentimendua: Nortasuna eta euskara. Bertako elkarrizketatuen artean sendoa da herriarekiko atxikimendua, bertako izatearen sentimendua, nortasuna. Ingurune naturalaren balio handia onartzen dute eta bere egiten dute ingurune hori, baina kezkarri zaizkie haren kontserbazioa, mantentzea, irisgarritasuna eta segurtasuna. Zumaia irudi diren aldetik, Itzurun-Algorri inguruak araudi baten premia duela uste dute. Halaber, hauek aipatu dira: alde zaharraren biziberritzea, eremu hori apaintzeko premia, mugikortasuna hobetzea, auzoak herrigunera gerturatuko dituen azpiegituren premia (ibai-bideak eta bidegorri/bideberdeak) eta turismo sailetik antolatutako jarduerak.

Garrantzitsutzat jotzen da, baita ere, euskara eta tokiko nortasunari balioa ematea turismoak zeharka lotuko dituen proiektuen bitartez: industria eta itsas iragana, toponimia, gastronomia, memoria historikoa eta euskararen erabilera.

Tokiko ekintzailetasun turistikoa. Elkarrizketatutako pertsona gehienek tokiko ekonomiaren lagungarri ikusten dute turismoa. Turismo segmentuak eta produktu turistikoak gara daitezkeela uste dute. Elkarrizketatutako gehiengoa turismo mota honen aldekoa da: komunitatean oinarritutakoa, naturari lotutakoa, familiakoa, kanpinzalea, zientifikoa, negozioekin lotura duena (MICE), gastronomikoa, aktiboa, bizipenetan oinarritutakoa eta kultura eta identitatea ardatz izango dituen. Aldiz, zinemagintzarekin harremana duen turismoa sustatzearen aurka agertu da gehiengoa.

Azken urteetan, surfaren inguruko jarduerak gora egin dute Zumaian.

Oro har, ekintzailetasuna negozio bakoitzaren barnean gertatzen dela aipatu da. Turismoaren sektorean ekiteko laguntzak falta direla esan da. Batek baino gehiagok esan du ez ostatuak falta direla erosketa-ahalmen urriko jendearentzat (aterpetxea edo tankerakoren bat). Alde zaharreko komentuaren erabilerrari buruz galdetuta,

eztabaida sortu da horren kudeaketa-ereduaren inguruan. Eraikin multzo osoari erabilera emateaz gain, alde zaharra bera biziberritzeko balio beharko luke han kokatuko litzatekeen jarduerak.

Azpimarra egin zaie honako gai hauei: ostalaritza zerbitzuen hobekuntza, parillan erabilera bultzatzea eta turismoaren "urtaroko" izaera gainditzea, horrek sektore turistikoko lanpostuen ezegonkortasunaren arazoa konpontzen lagunduko lukeelako.

Kultura ekosistema. Elkarrizketetan esan da elkarteen arteko harremana ez dela modu errazean gertatzen, eta erakundeek koordinazio lana egitea komeni dela, proiektuak elkarrekin egin ahal izateko. Hainbat elkartetako ordezkariak esan dute ez direla gutxietsi behar turismoari aplikatutako ezaugarri kulturalak eta harreman naturalak izan behar direla bisitari/turistekin, haien parte-hartzea begirunez gerta dadin. Tradizioaren eta berrikuntzaren arteko oreka bilatzen duten elkarlanerako guneak sortzea komeni da.

Turisten gorakadaren aurrean, hau proposatzen zaie erakundeei eta elkarteei: turisten jarioa lurraldean zehar banatzea produktu edo harreman sorta baten eskaintzaren bidez, antzeko iblbide tematikoak sortzea eta inguruko enpresa sortzaileekin sinergiak bilatzea.

Tokiko ekonomia paisaiaren eta naturaren arautzaile gisa. Lehen sektoreak bizi duen egoera kritikoa buruzko kezka azaldu dira. Horren ondorioz, ingurune naturalaren mantentze falta eta kalte handien arriskua aipatzen dira, suteen arriskua barne. Esan da lehen sektoreak (landetxeek eta baserritarrek, batik bat) laguntza behar duela turismoaren inguruko ekimenak garatzeko.

Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea. Oro har, Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea turismoa bultzatzeko marka nagusia dela uste dute zumaiarrek, baina onartzen dute ez dituztela ezagutzen eskaini ditzakeen aukerak. Bestalde, faltan botatzen dute Deba, Mutriku eta Zumaiaren arteko nortasun partekatuen sentimendua.

Gobernantza turistikoa. Tokiko sektore publikoak nabarmendu du baliabide gehiago behar direla jarduera turistikoaren kudeaketa osoa egiteko. Administrazioen arteko harremana modu positiboan baloratu da, nahiz eta, lehiakorrak izateko, koordinazioa falta dela onartzen den. Turismo bulegoa eta Algorri interpretazio zentroa eraikin berean baleude, Zumaiaren irudia hobetuko litzatekeela uste da.

Herritarren aldetik, ordea, gabezia bat nabari da. Esan da ez dagoela tresna edo espaziorik, parte-hartzearen bidez, turismoaren gaiari jarraipena egin eta haren inguruko erabakirik hartzeko. Tokiko turismoaren behatoki bat edo turismo mahaiak sortzearen inguruko proposamenak jaso dira.

Helmuga turistikoa adimentsua. Elkarrizketetatik honako hau ondorioztatzen da: azpiegitura teknologikoen eta prestakuntzaren gabezia nabari dela. Horiek erdietsita, errazago eta hobeto eskaini ahal izango lirateke bizipenen turismoa edo tokiko erreserben kudeaketa eta bestelako zerbitzuak, adibidez.

Posizionamendu geografikoa. Zumaia kokapen geografiko interesgarria du turismoaren lurralde-antolamenduan, kostaldearen eta barnealdearen arteko giltzarria baita. Hori horrela, bi aldeetako estrategiak lotzen ditu eta turista-jarioak banatzen ditu ekimen eta eskualde hauekin: Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea (Zumaia da eragile nagusia), Urola Kostako Udal Elkarte, Urola Erdia, Urola Garaia eta Explore San Sebastian Region. Azkenaldian horiekin guztiekin egiten den lankidetzaren positibotasun josten da eta harremanak sendotzearen aldeko apustua egiten da. Bide berdeak eta antzeko proiektuek elkarlan hori errazten dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Donostia eta Bilbo arteko kokapen egokian dago Zumaia. Donostiarekiko loturak, gainera, ongi baloratzen dira.

Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen bitartez UNESCOren nazioarteko sarean duen presentzia eta geologiaren alorrean nazioartean sortzen duen interes zientifikoak aukerak eskaintzen dizkio Zumaia. Hala, turismo zientifikoaren garapena oso positiboki baloratu da, bai tokiko eragileen aldetik, baita eskualdekoen aldetik ere.

Teknologia berriak. Alor honek turismoari eskaini diezazkiokeen aukeren gaineko ezagutzarik ez dutela aitortu dute elkarrizketatutako gizarte zibileko eragileek. Aldiz, positiboki baloratzen dute Zumaia presentzia sare sozialetan. Sektoreko profesionalak ere positiboki baloratzen dute, baina profesionalak badakite zein den lan horren helburua.

b. ZumaiaLab 1. LABORATEGIA ²⁶ : Ardatz estrategikoak/bektoreak eta erronkak

Laborategia (#lab) arazoak konpontzen saiatzeko ingurune bizia da. Lanerako espazio fisiko egokia ematen du, eta gai zehatzetan interesa duten lantaldeek modu interaktiboan sortutako emaitzak jasotzen ditu. Aholkulariak bailiran, parte-hartzaileek (eragileek) sakon aztertzen dituzte gaiak, arazoak identifikatzeko, konponbideak proposatzeko, lehentasunak ezartzeko eta sektoreen arteko sinergiak sortzeko.



Irudia 26. #zumaialab lehen laborategia.

²⁶ Ikusi #zumaialab 1.go laborategiko bideo laburpena, hemen: <https://youtu.be/4xYzIW3FGCg>

#ZumaiaLab laborategian erabilitako metodologia:

1. Turismo-politikak eta praktikak, esperimentazioaren oinarrian zehaztuak

- Lurralde-garapena helburu.
- Gizarte kohesioa/eraldaketa eta jasangarritasuna abiapuntu.
- Estrategia eragileekin eraiki eta formulatzea, parte-hartzea bermatuta.
- Gai konplexu eta kateatuak direnean, adimen kolektiboa behar dugu, eragileekin ezagutza.
- Beraz, estrategia (formulazioa) parte-hartzearekin (deliberazioa) uztartu behar da, eta alderantziz.

2. Zubigintza: eragileekin ezagutza/esperientzia anitzetan oinarritutako politikak eta praktikak formulatzea

- Irizien eta polarizazioen esparrutik datuetarako jauzia egin behar da.
- Kritikak onartzea, berauek balizko (er)alda(keta)gai gisa proposatu eta beste eragileekin lantzea.
- Eskuartearen ditugun baliabideak eskaintzea (ekonomikoak, sozialak, erakundeetakoak eta teknologikoak).
- Turismoaren aurkako edo/eta alboko kalteen kontrako txertoa bilatuz > Hipotesi bat. Tokiko ekintzailetasunarekin gainditu daitezkeela ikusten ari gara.



Irudia 27. #zumaialab lehen laborategian parte hartu duten eragileak.

1. LABORATEGIA >

Asteartea, 2017ko irailak 12

Lehen saioa. Maria eta Jose Ikastetxea, 10:00h – 11:00h

Bigarren saioa. Oxford aretoa, Alondegia Zumaia, 17:30h – 20:00h

- **Lehen saioa: Zumaiaiko haurrek turismoari buruz duten bat-bateko ikuspegia**

Bost talde osatu dira, bakoitza bost parte-hartzailerekin (lau haur 5-6 urtekoak eta 9-10 urteko haur bat, talde bakoitzean). Eman zaien orrian, hiru galdera hauei marrazki bidez erantzuteko eskatzen zaio talde bakoitzari:

1. **Nola marraztuko zenuke turista bat?**
2. **Zer egiten du turista batek?**
3. **Nola irudikatzen duzu Zumaia 1-2 urte barru?**

Jarraian adierazten dira lorturiko emaitzak, baita marrazkien irudiak ere:

Urtxintxa taldeak, surf-zalea den turista eta turistek erabiltzen dituzten garraiobideak marraztu ditu. Flyscha, bihotzak eta argazkiak ateratzen dituzten pertsonak marraztuz irudikatzen dute bi urte barruko Zumaia.

Itsasoa taldeak, ingelesez hitz egiten duten leku askotako turistak marraztu ditu. Etorkizuneko Zumaia "Zumaialandia" bihurtuta irudikatu dute.

Kolore taldeak, turista bat zer den azaltzeko, naturari eta paisaiari begiratu dio. Turistak flyscha itsasontzitik ikusteko hurbiltzen dira Zumaia, dirua uzten dute eta bi urte barru errepide eta hotelez jositako Zumaia irudikatu dute.

Onenak (1) taldeak, bizkar-zorroa soinean eta natura maite duen turista marraztu du. Zumaia, bi urtetan, turistaz beteta irudikatu dute.

Onenak (2) taldeak, adiskidetasuna aipatzen du, markako janzkiak dituen turista, itsasoaren arriskuak eta flyscha marraztu ditu. Etxe orratzak eta ur gaineko etxeak irudikatu dituzte etorkizuneko Zumaian.

- **Bigarren saioa: Laborategia helduekin**

Elkarizketatutako 108 eragileak gonbidatu dira laborategian parte hartzera. Azkenean, 71 bertaratu dirak. Zazpi lantalde osatu dira, eta aurrez adierazitako bost sektoreak ordezkatu dira lantalde bakoitzean (sektore publikoa, sektore pribatua, antolaturiko gizarte zibila, akademia eta ekintzaileak).

Ongietorriaren eta galdeketaren emaitzen aurkezpenaren ondoren, laborategiaren metodologia aurkeztu da. Parte-hartze zabala eskertu ondoren, hasiera eman zaio saioari.

Lehen laborategi hau bi fasetan banatu da: A eta B faseak.

A fasea. **Erronka.** Galdera hau plazaratu da:

"Zein da Zumaiaiko herritarrok turismoaren inguruan dugun erronkarik garrantzitsuena?"

Galderaren erantzunak lantaldeetan eztabaidatu ondoren, lortutako ondorioak aurkeztu dituzte bozeramaileek. Hona horien laburpena:

- Talde gehienetan hauxe izan da aipaturiko erronka nagusia: bertakoen ongizatea eta turistekiko elkarbizitza bermatzea, eta herritarrei zuzenduriko plan bat garatzea.

- Turismoa erabiltzea bertakoen nortasuna eta kultura-ezaugarriari balioa emateko. Horretarako, industria eta itsas ondarea, gastronomia, geologia eta memoria historikoa landu behar da.
- Turismoak eskaintzen duen zeharkakotasuna erabili behar da sektoreen arteko proiektuak garatzeko.
- Turismoaren kudeaketa egokia egiteko, "saldu baino lehen, zaindu" egin behar da, modu jarraitu eta jasangarrian.
- Turismoaren egungo arrakasta planifikatutako estrategia baten ondorioztat hartzen da.
- Turismo eskumenak dituzten erakundeen arteko koordinazioa hobetu behar da. Adibide moduan, esan dagoela orekarik ingurune naturalaren babesera zuzendutako politiken eta turisten etorrera masiboa bultzatzen duten jardueren artean.
- Flyscharen sustapen hutsera mugatu gabe, beste turismo mota bat garatzea komeni da.
- UNESCOren nazioarteko sarean dugun presentzia aprobetxatu behar da kalitateko turismoa garatzeko.

Talde bakoitzak egin dituen aurkezpenak alderatuta, nabarmendu da ez direla plazaratu aurretiaz egindako elkarizketetan azaldu diren hainbat gai/erronka:

- Euskararen erabilerari balioa ematea.
- Naturaguneen zaintza eta haien saturazioa.
- Ostatu-eredu berriak, aterpetxea.
- Komentu zaharrari erabilera berria ematea, herritarren kudeaketa-ereduan oinarritutakoa.
- Ohiko erabilerarako etxebizitzaren alokairua bermatzea, etxebizitza turistikoaren ugaritzearen aurrean.
- Gobernantza turistikoan herritarren parte-hartzea bermatzea.

B Fasea: **10 bektoreen lehentasuna**

Fase honetan, goian deskribatu diren 10 bektore edo ardatz estrategikoak aurkeztu dira. Taldeetan eztabaidatu ondoren, garrantziaren arabera sailkatu dira bektoreak (1 garrantzitsuenarentzat, 10 garrantzia gutxienekoarentzat). Lehentasun hurrenkera hau eman zaie 10 bektore estrategikoei:


1. **Elkarbizitza**
2. **Tokiko ekintzailetasun turistikoa**
3. **Tokiko sentimendua**
4. **Kultura ekosistema**
5. **Tokiko ekonomia, paisaiaren eta naturaren arautzaile gisa**
6. **Euskal kostaldeko Geoparkea**
7. **UNESCOren Euskal Kostaldeko Geoparkea**
8. **Gobernantza turistikoa**
9. **Helmuga turistiko adimentsua**
10. **Posizionamendu geografikoa**
11. **Teknologia berriak**

c. ZumaiaLab 2. LABORATEGIA²⁷: Proiektu operatiboak/lan eremuak

Ostirala, 2017ko azaroak 10
Oxford Aretoa, Alondegia Zumaia, 17:00h – 19:30h

Bi zatitan banatu da saioa: Azalpena (A) eta Lan jarduera: prototipatzea (B)

Metodologia 5 irizpide aurkeztea eta 10 sektoreak lantzea izan da, 5 proiektu prototipatzeko. Horretarako, 5 bozeramaile proposatu dira proiektu bakoitzerako.



Irudia 28. #zumaialab bigarren laborategiko irizpideak, estrategiak eta proiektuak.

²⁷ Ikusi #zumaialab 2.go laborategiko bideo laburpena, hemen: <https://vimeo.com/259034947>

5 IRIZPIDEEN DESKRIBAPENA:

Bideragarritasuna. Baldintza eta ezaugarri batzuek kontuan hartuta, proiektuak egiteko edota zehazteko aukerak aztertzen dira, nola ekingo den zehaztuta. Behar baldin bada, profil eta rol berriak sortuko dira.

Inplementazioa. Proiektuan programaturiko ideiarene abiapuntua da erabiltzaileak inplikazioa behar duela egiten ari dena garatzeko. Besteak beste, proiektua martxan jartzeko erabiliko diren ekintza, neurri eta metodoak adierazi dira. Eragin beharreko aktibitate eta alternatibak ezarri eta aliantza eraginkorrak ziurtatzen dira.

Prototipatzea. Amaierako erabiltzaileak oinarritzat hartuta, ideia berritzaileak sortzea da xedea. Premiei eta arazoei antzemanda, emaitza eraginkorrak eta, askotan, alternatibak sortzea/eraikitzea du helburu. Interakzioaren bidez, talde-lanean, logika ez-linealak landu nahi ditugu, berariaz aukeratu diren adituekin.

Ekintzaitza lokala. Ekintzaitza fenomeno gurutzatu eta soziala da, eta kudeaketa publikoaren ezagutza zabaltzen du eragile politiko, ekonomiko, akademiko eta gizarte-talentuen artean. Etorkizuneko belaunaldiei begira, modu jasangarrian garatu behar dira irudikapenak, bertako ohiturak, eremuak eta gaitasunak. Saiok berak piztutakoa bideratzea du xede.

Datuetan oinarrituta. Herritar adituek, datuak, txostenak, informazioa eta ezagutza ekarriko dute laborategira, gainerako kideekin partekatuko dituzte eta prototipatze kolektiboa lortuko dute. Datuen arabera diseinatutako prozesuei begira jarri gara, eta ikertutako emaitzak eta ondorioak landu dira.

5 PROIEKTUEN DESKRIBAPENA:

1. Zaharra bezain bizia: garena/duguna. Ondareari eta euskarari balioa eman behar zaio turismoaren begiradatik; horretarako, ibaiak eta alde zaharra hartuko izango dira lanerako gune nagusiak. Identitatea, euskara, ondarea, gastronomia edo/eta memoria historikoa landuko dira. Sinergiak topatu eta elkarrekin esperientzia bereizgarria lantzeko proposamena egiten da; alde zaharrean (Kofradia eta beste), ibaietan (Urola eta Arroarreka-Narrondo) eta Oikiarainoko gunetan gara daiteke.

2. Espazio turistikoaren kudeaketa. Turismoaren egungo gorakada eta "Game of Thrones" telesailak erakar dezakeen turista kopuru handia aurreikusita, turisten eta bertakoaren arteko harremana/oreka bideratzeko modua aztertu nahi da proiektuan. Beste aztergai batzuk dira etxebizitzaren gabezia eta bizimoduaren garestitzea, espazio urbanoaren eta naturalaren saturazioa, eta ostalaritzako negozio eredu berriak (landetxeak, airbnb, pisu turistikoak...).

Irisgarritasunaren, segurtasunaren eta naturaguneen zaintzaren gaiak atera dira elkarriketetan, eta baita "zaindari-hezitzailearen" figura berria sortzeko aukera ere. Gai horiek landu ditzake proiektuak.

3. **Zumaiako turismo-jarduera ekonomikoen aktibazioa.** Turismoaren sektoreko jarduerak lantzea proposatzen da proiektuan, negozio askoren arteko sinergiak topatzea. Negozio aukerak era jasangarrian betetzeko proiektuak aztertzen dira. Segmentu turistikoa berriak lantzeko proiektua da; turismo zientifikoa, adibidez. Lehiakortasuna.
4. **Gobernantza publikoa maila anitzetan.** Proiektuak protokolo eraginkorrak egitea planteatzen du, lurraldearen eta haren gobernantzaren artean koordinazio falta gertatzen denerako. Biotopo babesturako protokolo bat egin daiteke. Teknologia berrien erabilera Zumaiain nolakoa izan daitekeen aztertzen da. Herritarren parte-hartzea nolakoa izan daitekeen lantzeko proiektua. Turismoaren jarraipena edo tokiko behatokia eratzeko irizpideak lantzeko proiektua.
5. **Azpiegitura turistikoa.** Zumaiako eraikinen erabilera eta bide-sareak aztertuta, berrantolaketa koherente bat aztertzea eta jarduerak non egin daitezkeen proposatzea. Turismo bulegoa, Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea, Algorri Zentroa eta bestelako kokapen fisikoak baloratzeko proiektua da. Non eta nola koka daitezke? Gaur egun, Komentuak turismoarekin lotutako erabilera du, eta zer kudeaketa eredurekin kudea daitekeen aztertzen du proiektuak. Alde zaharra berpiztu eta edertzeko aukerak? Aparkaleku berriak?

Proiektu bakoitzean **bozeramaileak** izendatu dira eta banatutako **lanabesa** ²⁸ osatzeko, kontzeptuen mapa, sektore/estrategien taula, Zumaiako mapa, ekinbideak, irizpide-taulak eta datuak eman dira.

SINTESIA, bozeramaileek eginikoa:

1. proiektua: **Zaharra bezain bizia: garena/duguna**> Miriam Romatet, Zumaiako Udala Kultura

Zumaiaren wikipedia lantzea proposatzen du taldeak.

Lainoan kokaturiko proiektua, non herritarrak eta turistak interaktuatzen duten. Proiektu honetan, mapa interaktibo bidez gure ondarea (ontziolak non egon diren), ibilbideak (herria, natura, hitza, memoria) eta agenda erakutsi daiteke.

Lehen maila batean, identitatea, kultura eta euskara eta, osagarri moduan, gastronomia, alde zaharra eta ibaia ikusten du taldeak.

Natura ondarea eta haren mugak mapan agertzea ezinbestekoa ikusten da.

Itsasoari bizkarra ematen diogun herrian, ibaiarekin lotuta, Beduola proiektua bultzatzea.

Komentua herritarrei irekitzea.

²⁸ Ikusi lanabesa C eranskinean (2. laborategiko materiala)

2. proiektua: **Espazio turistikoaren kudeaketa** > Iñigo Lazkano, Basque Stay

Harraldea edo flysch gunea utzita dagoela uste du lantaldeak eta hura zaintzeko, segurtasuna bermatzeko eta zaborrak jasotzeko moduak azaldu dituzte.

Zumaiaren erdiguneko espazio publikoaren pribatizazioak kezka eragiten du, eta ordenantza berriak egitea edota daudenak aplikatzea planteatzen du talde honek (dendak, tabernak, etab).

Pisu turistikoaren mapa aztertu dute. Zumaian 3.800 etxebizitza daude eta horien okupazioa %85ekoa da. 600 etxebizitza librerekin ez dago alokairurako aukera asko. Etxebizitzaren %6 hutsik dago, eta %5 alokairura bideratzen da urtean zehar (200 etxebizitza). Eusko Jaurlaritzaren erregistroan 25 etxebizitza daude. Pisu turistikoak arautzeko premia ikusi dute, baina ez dute adostasunik lortu.

Mugikortasuna eta aparkamenduak aztertu ondoren, autobus zerbitzua jartzea proposatzen dute, turistek 10 minutura dagoen aparkalekua erabil dezaten (tren turistikoa ez zaie egokia iruditzen zerbitzu hori emateko).

Turismo bulegoak bisitariak bikoiztu ditu eta zumaiar batzuk turismorekin erreta daude.

3. proiektua: **Zumaiaiko turismo-jardueraren ekonomikoaren aktibazioa** > Lorea Uranga, Basque Destination

Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea da proiektuaren ardatza, eta haren estrategiak aplikatu dituzte herrian.

Turismo mota hauetan oinarritutako proiektuak bultzatzea proposatzen dute: osasun turismoa (kirola barne), turismo zientifikoa, itsas turismoa (ondareari balioa emanda), landa-turismoa eta gastronomia (olagarroa, identitatearekin lotuta).

*Ez dute uste pelikuletako turismoa luzerako denik, eta ez dute kontuan hartu proiektuan.

Enpresa arteko komunikazioa bideratzeko lanketa egin behar da. Baseritarren eta enpresen arteko erlazioak hobetu nahi ditu proiektuak.

Gure herriaren enbaxadore izateko urratsak ematea proposatu dute.

Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea (nazioartean kokatzen gaituena), euskara eta identitatea balioesten dituzte.

4. proiektua: **Gobernantza publikoa maila anitzetan** > Gorka Zabaleta, Baleike aldizkaria

Zumaiaren Turismo Behatokia eta Mahaia/Foroa sortzea proposatu dute.

Turismoari lotutako datuak jasoko lituzke, turismoak herrian eta herriarren eguneroko bizitzan zer inpaktu duen azaltzeko. Ez dute soilik turistei begira

egindako neurketak izan behar. Adierazleak erabaki behar dira. Erakundeekin koordinatua egin behar da lan, lankidetzan eta sarean.

Turismo mahaia osatzeko kideak aukeratu, datuak jaso, planaren jarraipena egin eta erabakiak hartu behar dira.

Ez dago gobernantzarik herritarren parte-hartzerik gabe.

5. proiektua: **Azpiegiturak** > Peru Fdz de Arroiabe, Mondragon Unibertsitatea

Zumaia txikia da, baina eskuragarri ditu azpiegiturak momentu honetan.

Komentuan **aterpetxea** eta jatetxea jartzea eta herritarrei irekitako jardueraren bat egitea proposatu dute.

Turismo bulegoa eta Algorri interpretazio zentroa anbulatorio zaharrera (Urola trenbideko geltoki zaharrera) eraman daiteke eta Foronda eraikinari erabilera eman.

Turismo aktiboko ibilbideak sortzeko proiektuak egin daitezke, turisten fluxuak harralde edo flyschetik eta zentrotik ateratzeko: Paolaldera joateko ibilbidea (zertarako erabil daiteke itsasargiaren eraikina?); Oikia auzoarekin lotura egitea bidegorri baten bidez; Narrondo auzoa, industria ondarea; Santiago ingurunea dinamizatu.



Irudia 29. #zumaialab bigarren laborategian parte hartu duten eragileak.


The background is a grayscale topographic map showing contour lines and building footprints. A white rectangular frame is centered on the page, containing the text and the large number. The number '5' is positioned on the right side of the frame, and the text 'III. FASEA. ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA' is centered below it.

5

III. FASEA. ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA

5. III. FASEA. Adierazpen estrategikoa

Prozesu parte-hartzailea egin ondoren, emaitzak jaso dira eta adierazpen estrategikoa aurkezten da atal honetan, Zumaiaiko turismoaren ikuspegia eta helburuak azaltzeko. Ardatz estrategikoak, lan-eremuak eta erronkak adierazi ondoren, ekinbideei dagozkien ekintzak zehazten dira. Horrekin guztiarekin, Zumaiaiko herriak turismoarekiko duen ikuspegi osoa azaltzen da.



Irudia 30. Zumaiaiko turismo planaren adierazpen estrategikoaren egitura.

a. Zumaiako turismoaren ikuspegi orokorra

Plan honen **ikuspegia (bisioa)** da kostaldea bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko leku erakargarria dela irudikatzea. Ikuspegi hori lortzeko, elkarlanean aritu behar du tokiko komunitateak, eta esperientzia eta aukera adierazgarrien bidez ahaldundu behar dira bertakoak eta bisitariak. Horrek guztiak tokiko ekonomiaren sustapena eragin behar du, giza garapena zainduta.

b. Helburu orokorra

Hau da Zumaiako Turismo Planaren helburu orokorra:

Hurrengo 4 urteetan egin behar diren turismo politiken gidarria aurkeztea, herritarren parte-hartzearekin egin den diagnosian oinarrituta, *kalitatezko turismo jasangarria sustatuta, eta herriaren nortasuna mantenduta*²⁹.

Herritarrek nahi duten turismo eredua zehaztu nahi du planak, eta, horretarako, turismoaren gaineko eztabaida ireki eta plazaratu nahi ditu; horrez gainera, lidergo kolektibo komunitarioa indartu nahi du turismoaren esparruan, haren kudeaketan eragiteko. Hori guztia egiteko bitarteko ditu aldebakarreko erabakietatik aldentzea, herritarrak ahalduntzea eta parte-hartzea bultzatzeko guneak eta tresnak sortzea.

²⁹ Zumaiako Plan Estrategikoan ezarritako 16. helburu estrategikoa

c. Helburu operatiboak

Plan honetan, bederatzi helburu operatibo azaltzen dira, helburu orokorra garatzeko:

1. **Turismoaren fenomenoaz kontziente izatea** > Turismoaren fenomenoa, egitate globala bihurtu den heinean, bere mehatxu eta aukera guztiekin aztertu behar da herriaren eraikuntzan; aldendutako posizioak hurbiltzeko espazioak eta elkarguneak topatu behar dira; diskurtsoa "eredu turistikoa" eztabaidan kokatu beharrean, "nahi dugun herria" eztabaidara bideratu behar da; eta helburua da turismoaren kudeaketan planteatzen diren erronkak herriaren erronkak direla ulertzea.

2. **Turistikoa zer den eta zer ez den, irudi estereotipatuak desagitea** > Bisitari ugari eguneroko bizitzako ohitura eta jokabide normalak ditu, ikono turistikoetatik urrun.

3. **Turismoaren gaia herritarrengana hurbiltzea** > Gainontzeko arlo guztiekin interakzioan aztertu behar turismoaren arloa, eta ez isolaturik. Modu kolektiboan eta parte-hartzailean jorratu behar da turismoa: zeharkako gaia izateari utzi dio eta agenda politikoa dago orain.

4. **Turismoak herritarrengan sortzen dituen kezkei erantzun egokia ematea** > Herritarrak kezkatuta daude turismoaren balizko masifikazioarekin, eta saturazio horrek naturaren babesean, elkarbizitzan eta herriko egoera sozioekonomikoan izan ditzakeen eraginekin. Albo kalteei aurrea hartu behar zaie. Mugak jarri eta babes neurriak hartuko dira, herriko ekosistema sozialaren orekari eusteko.

5. **Turismoaren arloan lidergo kolektibo komunitarioa indartzea, haren kudeaketan eragiteko** > Aldebakarreko erabakietatik aldendu eta parte-hartzea indartzeko guneak bultzatuko dira. Turismoari toki egokia eman behar zaio herri antolamenduan eta erabakiak hartzean, eta sailen arteko koordinazioa bermatuko da.

6. **Komunikazio koherentea eta zuzena helaraztea** > Zumaiaren komunikazioarekin, promozioarekin eta kudeaketarekin lerrotatu behar dira turismoaren promozioa eta marketin turistikoa, eta plan honen helburu guztiekiko jokabide koherentea izan behar da.

7. **Turismoaren kudeaketa integrala eta zeharkakoa bultzatzea** > Ekintzak modu estrategiko eta koordinatuan lantzean, kanpo-baldintzak eta turismoaren eragin

negatiboak kontuan hartzeaz gain, tokiko garapena bermatzeko indarguneak landuko dira.

8. Helmugaren lehiakortasunaz aritzerakoan, jasangarritasun eta erantzukizun kontzeptuekin lotuta ulertzea > Denboren eta gune fisikoen bideragarritasuna bermatu behar da. Naturaren babesa eta turismoaren bidez sortutako onurak herrian nola birbideratuko eta uztartuko diren azaldu behar da.

9. Garena ezagutaraztea > Helmuga edo destino turistikoa bakoitzak kontakizunekin eraikitzen du bere irudia. Nortasuna eta izaera ezagutarazteko aukera paregabeak ematen ditu turismoak, eta ezinbestekoa da, beraz, nortasun horri eustea. Bisitariak, bidaia prestatzen duenean, baliabide digitalak erabiltzen ditu bisitatuko duen lekuaren berri izateko. Fidagarritasunez erabiliko dira marketin tresna eta kanpainak, bisitarien esperientziak benetakoak izan daitezzen.

d. Erronkak eta lan-eremuak

Zumaiaiko Turismo Planaren erronka nagusia horrela adierazten da:

Bertakoen ongizatea eta turistekiko elkarbizitza bermatzea, herritarrei zuzenduriko plan baten bidez.

Aurreikusi diren bost lan-eremuetatik abiatuta, honela zehazten da erronka hori:

- A lan-eremua: **Identitatea eta izaera**. Tokian tokiko identitatearekin eta bertako izaeraren eremua da. Turismogintzak (1) euskara ikusarazteko eta haren erabilera bermatzeko aukerak ematen ditu; (2) ondarea, bere osotasunean ulertuta, balioan jartzeko erronkari hel diezaioke; eta (3) turismoaren erakargarritasuna estrategikoki lantzeko aukerak ematen ditu.
- B Lan-eremua: **Espazio Turistikoaren kudeaketa**. Turismoak espazioa modu zuzen eta iraunkor batean kudeatu behar du, eremu horretan egiten baitira jardura turistikoak. Erronka garrantzitsuak dira turismoaren (1) inpaktu positiboak eta negatiboak egoki kudeatzea; (2) egiten praktika onak ezagutaraztea; eta, (3) ingurumenaren zaintzari begiratuta, eragin turistikoen aztarna ekologikoa murriztea.
- C Lan-eremua: **Turismoaren jardura ekonomikoak aktibatzea**. Turismoak onurak dakartza komunitatean, herrian, eta lanpostuak sortzeko aukera berriak ematen ditu. Horretarako, (1) turismoaren balio katea osotasunean sustatuko da; (2) herritarren ekintzailetasuna bultzatuko da; eta, (3) sektore turistikoa osatzen duten eragileen prestakuntza eta profesionaltasuna hobetuko da.
- D Lan-eremua: **Gobernantza publikoa maila anitzetan**. Eragile guztien parte-hartzerik gabe ez dago turismoaren gobernantzarik. Turismoak maila anitzetan du eragina eta haren gobernantza egokia bermatzeko, (1) tokiko lidergoa sendotzeko lanak egingo dira; (2) aliantza estrategikoak jorratuko dira; eta, (3) ezagutza irekia sortuko da.
- E Lan-eremua: **Azpiegitura turistikoak**. Bertakoek bizi, inbertitu eta mantentzen dituzten baliabideak oinarritzko azpiegitura turistikoak dira bisitarientzat. (1) Eraikinak, hirigunea eta auzoak; (2) naturagunea eta landa lurra; eta, (3) lekuko mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzen duten azpiegiturak ustiatzeko eta mantentzeko erronkak lantzen dira atal honetan.

e. DEKALOGOA. Bektoreak edo ardatz estrategikoak

Zumaiaiko turismoaren egoera aztertu eta amaierako gida-oria aurkezteko, hamar ardatz estrategiko edo bektore baliatu dira plan honetan eta zabaldu den prozesu parte-hartzailean. Hauek dira ardatz estrategikoak:

- (i) **elkarbizitza,**
- (ii) **tokiko turismo ekintzailetasuna,**
- (iii) **tokiko sentimendua,**
- (iv) **kultura ekosistema,**
- (v) **tokiko ekonomia, paisaiaren eta naturaren arautzaile gisa,**
- (vi) **Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea,**
- (vii) **governantza turistikoa,**
- (viii) **helmuga turistiko adimentsua,**
- (ix) **posizionamendu geografikoa eta**
- (x) **teknologia berriak.**



Irudia 31. Ardatz estrategiko edo bektoreak.

Bektore edo ardatz estrategikoen **deskribapena** azaltzen da ondoren, dekalogo moduan:

1. **ELKARBIZITZA.** Jarduera turistikoak espazio publikoa nola erabiltzen duen aztertzen da, bertakoen eta bisitarien arteko elkarbizitza bermatuko duten baldintzak sortzeko. Herri baten turismo eredua finkatzeko eztabaidan, alderdi hauek planifikatu behar dira, arazorik edo desorekarik ez sortzeko: espazio publikoaren erregulazioa, naturagunearen babesa eta segurtasuna, herritarren ahalduntzea eta bisitariak bertako bizimoduan integratzeko estrategiak.

2. **TOKIKO TURISMO EKINTZAILETASUNA.** Gai hauek aztertzen ditu tokiko turismo ekintzailetasunaren ardatzak: arduera ekintzailearen analisia eta negozio aukera berriak, jarduera berritzaileetan inguruneak duen eragina, kulturaren garrantzia, hezkuntza, ekintzailetasunaren bizkortasuna eta turismo alorreko berrikuntza soziala. Horrenbestez, nahi den turismo eredu berritzailea finkatzeko urratsak ezartzen dira.

3. **TOKIKO SENTIMENTUA.** Kontzeptu honek hiri-diseinuaren eta ingurune naturalaren elementu ukigarriei egiten die erreferentzia. Baina baita bestelako elementu ukiezinei ere, hala nola nortasunaren paisaiari eta paisaia irudikatuei. Horiek guztiek definitzen dute leku edo herri bat.

4. **KULTURA EKOSISTEMA.** Ekosistemak osatzen dituzten pertsonen bidez lortutako onura immaterialak dira zerbitzu kulturalak. Lotura handia dute turismoko eta aisialdiko jarduerekin. Ekosistema kultural eta sortzaileak eraldaketa soziala eragiten du eta tokiko eragile guztiak barne hartzen ditu.

5. **TOKIKO EKONOMIA, PAISAIAREN ETA NATURAREN ARAUTZAILE GISA.** Natura turismoaren neurrigabeko igoerak arriskuan jar dezake bioaniztasuna. Baina turismo mota hori baliabide garrantzitsua da landa garapenerako, etekinak baitakarzkie tokiko erakundeei. Espazio babestuen (Biotopo Babestuaren) araudia betetzen ez baldin bada, egoera kalteberan gerta daiteke espazioa bera.

6. **EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA.** Euskal kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkearen irudiak turismoa kudeatzeko modu berritzaile bat dakar. Herritarrengandik hasita, zientzian (geologian), hezkuntzan, turismoan eta lurraldearen garapenean oinarritzen ditu bere estrategiak.

7. **GOBERNANTZA TURISTIKOA.** Turismoak, halaber, interes desberdinen arteko talka sortzen du. Talka horretatik sortutako arazoak kudeatzeko erabakien prozesuak adierazten ditu turismoaren gobernantzaren kontzeptuak. Ezinbestekoa da, beraz, eragile guztien arteko harremana bideratzeko espazioak sortzea. Hala, erabaki kolektibo hobek hartuko dira, aktore guztien artean adostutako lan sistemak erabiliko direlako eta kudeaketarako eta garapenerako prozesu berriak diseinatuko direlako.

8. **HELMUGA TURISTIKO ADIMENTSUA.** Helmuga turistikoa berritzaileak dira helmuga turistikoa adimentsuak: abangoardiako azpiegitura teknologikoaren oinarrian finkatzen da; lurralde turistikoa garapen jasangarria eta iraunkorra bermatzen ditu; irisgarria da pertsona ororentzat; bisitariaren eta ingurunearen arteko elkarrekintza eta integrazioa errazten ditu, eta bizipenen kalitatea handitzen du helmugan. Horren guztiaren ondorioz, berrikuntza baliatzen du lehiakortasuna indartzeko, helmuga turistikoa hautematea hobetzen du eta enpresen gaitasun produktiboa handitzen. Azken baten, bertakoen bizi-kalitatea hobea lortzen du helmuga turistikoa adimentsuak.

9. **POSIZIONAMENDU GEOGRAFIKOA.** Espazio geografikoak modu jasangarrian hartu behar ditu espazio horretarako planifikatzen diren estrategiak. Markak eta produktu turistikoa sor daitezke posizionamendu geografikotik, eta bisitariak erakartzeko gaitasuna erabaki dezake maila bat baino gehiagotan. Helmuga turistikoen posizionamendu geografikoa erabakigarria da erakundearen arteko harremanak bideratzeko eta estrategiak koordinatzeko.

10. **TEKNOLOGIA BERRIAK.** Teknologia berriak ezinbesteko dira turismogintzan. Informazioa eta ezagutza trukatzeko erabiltzen dira, baina, horrez gain, aplikazioak eta egintza jasangarriak bermatuko dituzten metodologiak garatzeko baliatzen dira. Horrenbestez, sektorearen beste hainbat ardatzetan eragiten dute, hala nola klima-aldaketa, ondare ukigarri zein ukiezinen babesa edo erabiltzailearen (turistaren) kudeaketa digital integrala.

Honela erlazionatzen dira Zumaiako turismoaren ikuspegia jorratzeko bektoreak (ardatz estrategikoak) eta bost lan-eremuak:

Bektoreak (ardatz estrategikoak)	Lan-eremuak				
	A IDENTITATEA ETA IZAERA	B ESPAZIO TURISTIKOEN KUDEAKETA	C TURISMOAREN JARDUERA EKONOMIKOEN AKTIBAZIOA	D GOBERNANTZA PUBLIKOA MAILA ANITZETAN	E AZPIEGITURA TURISTIKOAK
1. ELKARBIZITZA	●	●	●	●	●
2. TOKIKO EKINTZAILETASUN TURISTIKOA	●	●	●	●	●
3. TOKIKO SENTIMENTUA	●	●	●		●
4. KULTURA EKOSISTEMA	●	●	●		●
5. TOKIKO EKONOMIA	●	●	●		●
6. EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA	●	●	●	●	●
7. GOBERNANTZA TURISTIKOA	●	●	●	●	●
8. HELMUGA TURISTIKO ADIMENTSUA	●	●	●		
9. POSIZIONAMENDU GEOGRAFIKOA	●	●	●	●	●
10. TEKNOLOGIA BERRIAK	●	●	●	●	●

Taula 11. Zumaiako Turismo planaren bektoreen (ardatz estrategikoen) eta lan-eremuen arteko erlazioa.

Hamar ardatz estrategiko edo bektoreak kontuan hartuta, adierazpen estrategikoan proposatutako ekinbideak eta ekintzak adierazten dira hurrengo ataletan, ekintzen lehentasuna zehaztuta. Atal bakoitzean, taulen bidez, ekintzak azaltzen dira.

i. 1. Bektore/ardatz estrategikoa: ELKARBIZITZA

Lehentasuna: ① handia ② ertaina ③ txikia

Ekinbidea	Ekintzak	Lehentasuna
(1) Fluxuak banatu, erdigunea eta auzoak	(1) Bisitarien etorrera	2
	(2) Oikia auzoarekin lotura bultzatu	1
	(3) Bidegorria, Urola Garaiarekin lotura	1
	(4) Taxi zerbitzua eta landetxeak	3
	(5) Itsasontzi zerbitzua, Santiago	2
	(6) Bilboko aireporturako konexioa ikusarazi	3
(2) Naturagunea	(7) Mugatzeko neurriak naturagunean	1
	(8) Segurtasun Protokoloa	1
	(9) Deba-Zumaia Biotopo Babestua	1
	(10) Irisgarritasuna	2
	(11) Landa luraren garbiketa eta zaintza	1
	(12) Urola itsasadarra	1
(3) Gune publikoak eta zerbitzuak	(13) Aterpe gunea	3
	(14) Espazio publikoaren pribatizazioa	2
	(15) Alde Zaharra biziberritzea	2
	(16) Donejakue bidea	2
	(17) Medikuntza zerbitzuak	3
(4) Etxebizitza eta pisu turistikoak	(18) Etxebizitza turistikoen erregistroa	2
	(19) Alokairu turistikoaren ikerketa	1
	(20) Pisu turistikoen ordenantza	1
(5) Mugikortasuna eta barne garraioa	(21) Aparkalekua	1
	(22) Barne garraiorako ibilgailua	1
	(23) Bidegorriak	2
	(24) Karabanak	1
(6) Genero ikuspegia turismoan	(25) Berdintasuna kontratazioan	1
	(26) Emakume baseritarraren aintzatespena	3
	(27) Emakumeen ekintzailatza sustatu	2

Taula 12. Bektorea/ardatz estrategikoa: ELKARBIZITZA > Ekinbideak eta ekintzak.

1	Bektorea	ELKARBIZITZA	
1.1.	Ekinbidea	FLUXUAK BANATU, ERDIGUNEA ETA AUZOAK	
	Sintesia	Erdigunean daude gune erakargarri turistiko gehienak eta hurbil ditu interes handiena dakarten guneak ere; ondorioz, ohikoa baino bisitari kopuru handiagoak hartzen ditu garai batzuetan. Auzoetan, berriz, turismoak dakartzan onurak edo negozio aukerak garatzeko, fluxu turistikoan banaketa orekatua lagungarri izan daiteke auzoei bizi emateko. Horretarako, bien alde egin dezaketen ekintzak aurkezten dira atal honetan.	
	Lan eremua	B C E	
	Erronkak	B1 C1 E1 E2 E3	
1.1.1.	Ekintza	FILMETAKO BISITARIAK	
1	Laburpena	"Ocho apellidos vascos" pelikularen grabazioak zenbat bisitari eta nolakoak erakarri dituen jakinda eta "Game of Thrones" telesailaren grabazioak erakar dezakeena aurreikusita, bisitariak barnealdera bideratzea gomendatzen da eskualdera eta erkidegora, ibilbide tematikoen bidez. Turismo liburuxkak eta webguneak prestatu eta bisitariak informatu.	
	Eragileak	Zumaiaiko Turismoa eta eskualdeko erakundeak	
	Lehentasuna	2 - Ertaina	
	Epea	2018 > 2021	
1.1.2.	Ekintza	OIKIA AUZOAREKIN LOTURA BULTZATU	
2	Laburpena	Natura eta familia izaerako turismoa bultzatu eta auzoa erdigunera hurbiltzeko, Oikia eta herriaren erdigunea lotuko dituen bidegorriaren proiektua aztertzea proposatzen da, herriko bidegorri sarea osatzeko.	
	Eragileak	Zumaiaiko Udala eta ostatuak	
	Lehentasuna	1 - Handia	
	Epea	2019 > 2020	
1.1.3.	Ekintza	BIDEGORRIA, UROLA GARAIAREKIN LOTURA	
3	Laburpena	Arroa Beheko tartea osatzea falta da Zumaia-Brinkola bitarteko bidegorria lotzeko 45 kilometroko luzeran. Herritarrak mobilizatu dira bidearen amaiera erreklamatzeko. Barneko eskualdearekin fluxuak banatzeko, bidea amaitzeko ekimena bultzatzea eta erakundeekin hitz egitea proposatzen da.	
	Eragileak	Herritarrak, Zumaia Turismoa, turismo sektorea eta erakundeak	
	Lehentasuna	1 - Handia	
	Epea	2018 > 2021	
1.1.4.	Ekintza	TAXI ZERBITZUA ETA LANDETXEAK	
4	Laburpena	Landa turismoko bisitariak, erdigunera eta garraio publikoko geltokietara hurbiltzeko, taxi zerbitzua erabiltzen dute askotan. Taxilariekin hitzarmenak egitea proposatzen da.	
	Eragileak	Ostatuak eta Taxi zerbitzuko arduradunak	
	Lehentasuna	3 - Txikia	
	Epea	2019	
1.1.5.	Ekintza	ITSASONTZI ZERBITZUA, SANTIAGO	
5	Laburpena	Barne mugikortasuna hobetu eta Itzurun hondartzan saturaziorik ez izateko, jarraipena ematea Santiago hondartzako itsasontzi zerbitzuari.	
	Eragileak	Zumaiaiko udala eta sektore pribatua	
	Lehentasuna	2 - Ertaina	
	Epea	2018 > 2021	
1.1.6.	Ekintza	BILBOKO AIREPORTURAKO KONEXIOA IKUSARAZI	
6	Laburpena	Donostiara joateko garraio zerbitzu publikoa ona da, baina lotura ez da oso ona Bilborekin. Bisitariari begira, aireporturako konexioa ikusarazteko ahaleginak egitea proposatzen da.	
	Eragileak	Zumaiaiko Udala eta dagokien erakundeak	
	Lehentasuna	3 - Txikia	
	Epea	2019	

1	Bektorea	ELKARBIZITZA	
1.2.	Ekinbidea	NATURAGUNEA	
	Sintesia	Natura baliabideak honda ditzakete naturagunean egiten diren jarduera turistikoek. Turismoak sortzen dituen onura ekonomikoak, natura babestera bideratzea gomendatzen da, tokiko jasangarritasunera iristeko. Nekazaritza jarduera desagertzen bada, paisaia galduko da. Atal honetako ekintza gehienak lehenetsun handikoak dira.	
	Lan eremua	A B E	
	Erronkak	A3 B1 E2 E3	
1.2.1.	Ekintza	MUGATZEKO NEURRIAK NATURAGUNEAN	
7	Laburpena	Eztabaida zabalik dago. Erabakiak hartzean, datuak eta erreferentziak kasuak hartu behar dira kontuan. Gure naturaguneko leku erakargarrien jasate-ahalmena ezagutzeko administrazio prozedurak egitea eta eztabaidari jarraipena ematea, erabakiak hartzeko.	
	Eragileak	Zumaiaiko Udala, EK Geoparkea, Aldundia eta herritarrak	
	Lehenetsuna	1 - Handia	
	Epea	2018 > 2021	
1.2.2.	Ekintza	SEGURTASUN PROTOKOLOA	
8	Laburpena	Itsaslabarrean, Algorrin eta Itzurunen segurtasuna bermatzeko protokoloa idaztea eta jakinaraztea. Kartelak eta webgunea.	
	Eragileak	Zumaiaiko Udala, EK Geoparkea, Aldundia	
	Lehenetsuna	1 - Handia	
	Epea	2018 > 2019	
1.2.3.	Ekintza	DEBA-ZUMAI A BIOTOPO BABESTUA	
9	Laburpena	Biotopo babestuaren erregimenak arautzen du zer jarduera egin daitezkeen eremu horretan, eta araudia betetzeko prozedura administratiboak abiatu behar dira.	
	Eragileak	Zumaiaiko Udala, EK Geoparkea, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza	
	Lehenetsuna	1 - Handia	
	Epea	2018 > 2019	
1.2.4.	Ekintza	IRISGARRITASUNA	
10	Laburpena	Naturaguneko irisgarritasuna bermatzea, pertsona ororentzako turismoa sustatzeko. Komunikatzeko eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat egitura turistikoak sortzeko ekimenak bultzatzea proposatzen da. Adierazleak aztertzea proposatzen da.	
